

2017 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXXII. edizioa

Ipuina

Komikia

Bertsua



Antolatzailea:



Bergarako Udala
EUSKARA BATZORDEA

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA	5
---------------	---

Ipuina

1. taldea:

Saria: Tximeleta zelaian. Laia Azkarate-Askasua	7
Saria: Laida eta Izar txutxezko munduan. Izar Aranburu	11
Saria: Norak futboleant jokatu nahi du. Mireia Etxaniz.....	15

2. taldea:

Saria: Maitasunaren argia. June Kalboetxeaga.....	19
Saria: Ni eta hiru lagun zituen alfonbra hegalaria. Malen Aranburu.....	23
Saria: Kobazuloko kondaira. Ariane Igartua	27

3. taldea:

Saria: Sekulako abentura. Enara Alberdi.....	31
Saria: Aniztasunaren zaintzailea. Eider Elorza	37
Saria: Arranoaren guraize kaltegarriak. Unax Zangitu.....	41

4. taldea:

1.saria: Gerratik ihesi. Izar Sanchez	45
2.saria: Itsasoak ekarri zidana. June Odriozola	51
3.saria: Amildegian behera. Oier Elortza.....	57

5. taldea:

1. saria: Katu-katua ez zen bat. Fernando Garatea.....	65
2. saria: Geranioen iraultza. Amaia Telleria	77
3. saria: Denboran ametsetan. Aiora Arregi	85

Bertsoa

1. taldea:

Saria: Koldo Eleizalde . Alaine Egizabal, Denisa Condrat, Irene Romero	97
Saria: Bizitzako etapak . Kepane Gonzalez	101

3. taldea:

1. saria: Aztrotia . Unai Aranzabal	105
--	-----

Komikia

1. taldea:

Saria: Kotxe txikia . Amañur Olabarria.....	109
Saria: Otsoaren bizitza . Anne Matilla	113

2. taldea:

1.saria: Eguna berriz hasi . Ainara Plata, Irati Palacios.....	117
2. saria: Jokoa ez da errenta . Eneko Munarriz, Claudia Lopez, Leire Arietaleanizbeaskoa	119

3. taldea:

1.saria: Lainoak ere..... gainezka . M ^a Angeles Padilla	121
2. saria: Torlojuek odol zaporea dute . Aratz Guridi, Aitzol Oiarzabal, Lur Azkarate.....	123

Urtero legez, aurtengo Koldo Eleizalde lehiaketako uzta ere oparoa izan da: ipuinak, txisteak, bertsoak, komikiak...

Gure herriko sortzaile txiki zein nagusien ilusio, sormen eta gogotik egindako lanen bilduma ederra eta bizia jasotzen da eskuartean duzuen liburuxka honetan.

Sortzaile horietako bakoitzaren barne-musika bereziaz jabetzeko aukera bikaina da, irakurle gisa gozatzeko eta disfrutatzeko.

Jakizue Koldo Eleizalde lehiaketako lan hauek eta beste hainbat (antzerkiak, ipuin-kontaketak...) gozatu ahal izango direla Internet bidez, **<http://www.bergarakoeuskara.eus/koldo-eleizalde-lehiaketa>** helbidean. Han izango dituzue lehiaketara aurkeztutako ikusentzunezko guztiak.

Amaitzeko, zorionak saridunoi eta eskerrik beroenak parte-hartzaileoi zein lehiaketa posible egin duzuen guztioi. Aurrerantzean ere parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko gonbidapena egiten dizuet. Mila esker eta zorionak guztioi!!!

Izaskun Labaien

Euskara batzordeburua

Ipuinak

Behenengo taldea Saria



Tximeleta zelaian

Laia Azkarate-Askasua

Tximeleta zelaian

Bazen behin tximeleta txiki eta polit bat. Jolastea asko gustatzen zitzaion eta udaberriko lehenengo egunean zelai batera joan zen jolastera.

Hainbeste jolastu zuenez nekatu egin zen. Logura etorri zitzaion eta lore batean lo geratu zen.

Zelaira mutiko bat etorri zen eta tximeleta zegoen lorea hartu eta etxera eramane zuen.

Eta etxera itzuli zenean konturatu zen loreak tximeleta bat zuela eta kaiola batean sartu zuen tximeleta. Baina kaiola jausi egin zen eta tximeletari hegoa apurtu zitzaion.

Mutikoak hegoa konpondu zion eta tximeleta oso pozik zelaira joan zen jolastera.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila San Martineko eskolan.

Ipuinak

Behenengo taldea Saria



**Laida eta Izar
txutxezko munduan**

Izar Aranburu

Laida eta Izar txutxezko munduan

Baziren behin bi neskabila, batek Izar zuen izena eta besteak Laida. Biei txutxeak izugarri gustatzen zitzaizkien.

Egun batean ate majiko bat topatu zuten parkean.

—Begira, Izar. Ate bat dago eta majikoa dirudi! Sartuko gara?

—Ez, beldurra diot.

—Lasai! Nik babestuko zaitut.

—Bale, joango naiz.

Eta txutxez betetako mundu bat topatu zuten. Herri txiki bat zen fabrika eta guztiz eta han ipotxek lan egiten zuten.

Herritik urrun gizon gaizto bat bizi zen.

Izar eta Laida gizon gaiztoaren etxera joan ziren. Han gizon gaiztoa zegoen eta Laida eta Izar beldurtu egin ziren, baina gizonak hau esan zien:

—Nora zoazte lasterka?

—Zuregandik ihesi!

—Zergatik?

—Herriko jendeak zu gaiztoa zarela esaten du.

—Baina, hori ez da egia. Ni txintxo naiz. Nik, bakarrik, jendeari lagundu nahi diot.

—Eta zergatik ez diozu jendeari laguntzen?

—Jendeak ez didalako uzten.

—Lasai, guk lagunduko dizugu.

—Bale! Goazen ba, jendeari laguntzera.

Baina herritarrak beldurtu egin ziren:

—Gizon gaiztoa! Eta bi ume daramatza! Izar eta Laida!

—Lasai, ez da gizon gaiztoa!

—Bai! Bai!

—Berak, bakarrik, zuei lagundu nahi dizue.

—Bale ba, gelditu gurekin.

—Eskerrik asko

Eta gizon gaiztoa gizon formal bihurtu zen.

Ipuinak

Behenengo taldea Saria



**Norak futbolean
jokatu nahi du**

Mireia Etxaniz

Norak futbolean jokatu nahi du

Gaur futbol zelaian Nora izeneko neska bat zegoen futbola ikusten eta galdetu zion gizon batek:

—Aizu, neska! Zertan ari zara?

—Futbola ikusten. Handitzen naizenean futbolaria izan nahi dut.

—Baina futbola ez da neskentzat —erantzun zion gizonak.

—Zer? —galdetu zuen Norak harriturik

—Neskek ezin dutela futbolean jokatu —erantzun zuen gizonak.

—Hori ezin da izan. Nire aitag esan zidan neskek eta mutilek aukera berdina dituztela.

Eta gizona isil-isilik geratu zen eta, orduan, haserretu eta negarrez korrika batean joan egin zen.

Ipuinak

Bigarren taldea Saria



Maitasunaren argia

June Kalboetxeaga

Maitasunaren argia

Jaio zirenetik ez zuten elkar ezagutzen baina Eguzkiak eta Ilargiak bata bestea ezagutzeko sekulako gogoia zuten.

Egunero Eguzkia ateratzen zenean Ilargia lotara joaten zen eta Eguzkia lotara joaten zenean Ilargia ohetik jaiki eta hortxe egoten zen gau osoan, zeru ilunean argi pixka bat jarritz.

Dena den, nahiz eta elkarrekin ez egon, egunero egunero elkarren berri izaten zuten, hau da, izarrek gauero Eguzkiaren mezuak ematen zizkieten Ilargiari eta honen erantzunak, berriz, Eguzkiari.

Beraz, izartxo guztiak bikotearen mezulari bihurtu ziren. Oso gauza politak esaten zioten elkarri, baita olerki eta eskutitz ederrak idatzi ere, eta horrela, poliki-poliki, maitemintzen joan ziren.

Baina, oso triste zeuden biak, bazekitelako inoiz ez zirela elkarrekin egongo, ezinezkoa zelako. Beraz, horrela esaten zion Ilargiak bere lagun izarrari:

—Bai tristea gure bizitza!

—Zergatik esaten duzu hori?


—Inoiz ez garelako elkarrekin egongo! Ezta aurpegirik ikusiko ere! Eta gutxiago oraindik elkar ikutuko! —eta negarrez hasi zen Ilargia.

Horrela, egunak pasa eta unibertsoa izar guztiek gero eta tristeago ikusten zuten bikotea. Eguzkiak gero eta argi gutxiago zeukan eta baita Ilargiak ere.

Horrela jarraituz gero, unibertsoa argirik gabe geldituko zela pentsatu zuten izarrek, ilunpetan, eta zerbait egitea erabaki zuten.

Gau batean unibertsoko izar guztiak elkartu eta batak besteari eskua emanaz, Ilargiari besotik heldu, eta Eguzkia sartzera zihoan momentuan, guztiek indartsu tira egin eta Ilargia Eguzkiarengana hurbildu zuten. Momentu batez elkarri begira geratu ziren eta bien aurpegietan sekulako irribarrea atera zen.

Handik aurrera oso zoriontsuak izan ziren eta egunero momentu batez elkarrekin egoten ziren, momentutxo batez behintzat! Eta Eguzkiak eta Ilargiak inoiz baino argi indartsuago izan zuten eta egunak eta gauak ederragoak bihurtu zituzten.



Ipuinak

Bigarren taldea Saria



**Ni eta hiru lagun
zituen alfonbra hegalaria**

Malen Aranburu

Ni eta hiru lagun zituen alfonbra hegalaria

Orain dela bi hilabete, hau da, abenduaren 30ean, gauean, gelako alfonbran nengoela panpinekin jolasten... esan nuen: “Goazen lagunengana!”.

Bat-batean alfonbra hegan hasi zen. Nik pentsatu nuen ametsetan ari nintzela, baina ez! Egia zen hura dena.

Hegan ari ginela herri txiki batera heldu ginen, Getaria zen! Handik pare bat minutura nire amona Begoñaren etxe aurrean nengoan. Alfonbrak ez ninduen nire lagunengana eraman, bere lagunengana eraman ninduen.

Alfonbra terrazara igo zen eta han zegoen nire amona. Alfonbra ikusi zuenean amonak hau esan zidan:

—Malen, hau nik oparitu nizun alfonbra al da?

Nik baietz erantzun nion eta honela esan zion alfonbrari:

—Alfonbra, nire lagun hori, eramango al nauzu zurekin eta Malenekin?

Alfonbrak baietz erantzun zion, bere modura.

Ondoren, nire amona igotzean alfonbra berriro ere hegan hasi zen. Bat-batean hiri handi baten gainean ginen, Madril zen!

Handik pare bat minutura hotel baten aurrean ginen eta han, terrazan kafe bat hartzen, nire andereño Blanca zegoen.

Blancak hau esan zion nire amonari:

—Begoña, alfonbra hau zuk bigarren eskuko azokan erosi zenuen, ezta?

Nire amonak baietz erantzun zion eta Blancak hau esan zion alfonbrari:

—Alfonbra, nire lagun hori, eramango al nauzu zurekin, Malenekin eta Begoñarekin?

Alfonbrak baietz erantzun zion eta oraingoan ere, Blanca alfonbrara igo zenean, hegan hasi zen.

Handik ordu erdira basamortu batean gainean ginen, Arabia zen!

Ni harrituta gelditu nintzen, hango bero hura.... uf! Tira, eskerrak alfonbrak abiadura hartu zuen, bestela han itoko nintzen. Han, basamortu zabal hartan herrixka bat ikusten zen.

Herrixkara jaitsi ginen eta hango etxe baten aurrean gelditu ginen. Bat-batean gizon arraro bat atera zen etxe hartatik. Matoa izenekoa omen zen. Lehenengo alfonbrari hitz egiten hasi zen:

—Ala-ka al-i ala-xo, ala-ni ala-re ala-la ala-gun ala-ho ala-ri! —esan zion alfonbrari.

Ni harrituta gelditu nintzen baina, gero, Blanka honela esan zidan:

—Aizu, Malen, gogoratzen duzu 4. mailan zinenean, laugarren gaian, Arabiari buruz ari gineneko ipuin hura?, “Alfonbra berria” izenekoa?

Nik baietz erantzun nion eta amonari erakutsi nion ulertzen:

—Amona, ala eta al guztiak kendu eta gure moduan hitz egiten du. Oso erraza da.

Amonak galdetu zidan:

—Eta orain zer esan du?

Eta nik honela erantzun nion:

—Ba, esan du: Kaixo nire lagun hori!

Matoak harrituta begiratzaren gintuen, eta gero gurekin hasi zen hitz egiten:

—Ala-ka al-i ala-xo ala-ni ala-Ma ala-to al-a ala-na ala-iz.

Nik honela erantzun nion:

—Hau Blanca da, hau nire amona Begoña eta ni Malen. Zuk egin al duzu alfonbra hau?

Berak hau erantzun zidan:

—Ala-ba al-i.


Bat-batean haize bortitz bat altxatu zen eta hondarrarekin haize zurrumbilo bat sortu zen. Matoak joateko esan zigun haize zurrumbilo hark ez harrapatzeko.

Gu alfonbrara igo ginen eta Matoa behean gelditu zen, baina.... haize zurrumbilo hura berarengana heldu aurretik alfonbrak salbatu zuen.

Gero, denok Bergarara bueltatu ginen. Dena sekretua da. Inork ez daki bakarrik 4 pertsonen eta alfonbra batek.

Ipuinak

Bigarren taldea Saria



Kobazuloko kondaira

Ariane Igartua

Kobazuloko kondaira

Bazen behin herri txiki-txiki bat kobazulo haundi-haundi bat zuena. Hango jendeak esaten zuenez kobazulo haren inguruko kondaira bat zegoen: pertsona bat kobazuloan sartzen zenean ez zen inoiz gehiago irteten.

Herri hartan bazegoen mutiko bat abenturak eta misterioak izugarri gustatzen zitzaizkionak. Kondaira hura entzun zuenean, hau esan zuen:

—Ni oso ausarta naiz eta gaur bertan egingo ditut maletak bihar goizean kobazulora joateko.

Hurrengo goizean.... mutikoa prest zegoen kobazulo hartara joateko eta esan zuen:

—Kobazulo honek nire amak haserretzen denean baino beldur gehiago ematen du, horregatik dio kondairak inor ez dela leku honetan ibiltzen.

Azkenean, minutu batzuk pasa ondoren, konbentzituta, kobazulora sartu zen. Dena lokatzaz eta ur tantaz beteta zegoen.

—Nik ez dut beldurrik eta misterioa argituko dut! —esan zuen mutikoak.

Bat-batean kobazuloa ilun-ilun jarri zen eta zuloa itxi egin zen.

—Nola irtengo naiz kobazulotik? —esan zuen mutikoak.

Baina, berak positibo pentsatu eta gauza politetan pentsatzen hasi zen. Azkenean lortu zuen zuloa irekitzea eta poz-pozik etxera abiatu zen.

Etxera iritsitakoan, konturatu zen altxor garrantzitsuena norberaren barruan dagoela, norbere buruan konfiantza izanda edozer gauza lor daitekeela, guztiok dugula gaitasuna edozer gauza egiteko eta sinestea dela kontua. Besterik ez, hor dago koxka!

Ipuinak

Hirugarren taldea Saria



Sekulako abentura

Enara Alberdi

Sekulako abentura

Ni pepinillo arrunt bat naiz, zehaztuz, Mr. Peppi Pepinilloa, baina guztiek Peppi deitzen didate.

Asko gustatzen zaizkit abenturak, baina beti eramaten ditut nire birraitonak oparitutako txapela eta monokulua nirekin, zortea ematen baitidate.

Guztia nire laguna Tomas Tomatearekin jolasean nengoenean hasi zen.

Lasai-lasai geunden biok, sorgin itxurako emakume zatar bat sartu zen arte fruitategian.

Tomas eta ni geunden lekurantz hurbildu eta “zelako prezio ona!” edo horrelako zerbait esan eta poltsa batean sartu ninduen oso isila zen txanpiñoi batekin.

Tira, egia esan, ez nago seguru ea isila zen edo ez, gauza da nik sekulako oihuak botatzen nituela eta bera, berriz, isil-isilik zegoela.

Ondoren BRUUUUUUUUUM-en oso antzerakoa zen zarata egiten zuen tresna arraro batean sartu gintuen.

Ni oso beldurtuta negoen, poltsan zulo bat egiten saiatu nintzen baina ez nuen lortu.

Nire ondoan zegoen txanpiñoiari begiratu nion, baina beti bezain lasai zegoen.

Azkenean, zarata arraroa egiten zuen tresna hartatik atera gintuen eta zulo bat egitea lortu nuen poltsan. Emakume hura bezain zatarra eta arraroa zen etxe batean geunden.

Emakumea beste norbaitekin hitz egiten zegoela entzun nuen, baina ez nuen ezer ulertzen.

Bat-batean, norbaitek, gu geunden poltsa hartu eta oso-oso hotza zegoen leku batean sartu gintuen. Ez geunden gu bakarrik. Bertan, Tomas bezalako tomateak zeuden eta Ana bezalako bananak.

—Nahi duzu hemendik irten? —galdetu zidan ahots ezezagun batek.

Burua biratu eta txanpiñoi arraro hura zela ikusi nuen.

—Ni Txanpi nauzu, eta ea hemendik irten nahi duzun galdetu dizut, bai edo ez?

—Bai, baina nola? —erantzun nion

—Zuk segitu niri.

Hori esan bezain laster, nork daki nola, baina leku hotz hartako atea zabaldu zuen, eta bi aldiz pentsatu gabe, bertatik atera ginen biok. Eta kontu handiz etxe arraro hartatik irten ginen. Ez dakit nola, baina irten ginen.

Etxe ondoan, umez betetako parke moduko bat zegoen.

—Goazen! —esan zidan Txanpik, bere betiko tonu misteriotsuarekin.

—Eeeee? —erantzun nion nik, ez bainuen ezer ulertzen.

—Goazen —errepikatu zuen.

—Baina, nora?

Niri begira geratu zitzaidan eta, ondoren, parkea seinalatu zuen.

—Horra sartu behar al gara? Zapaldu egingo gaituzte!

Uste dut ez zidala entzun, zeren eta niri kasurik egin gabe, korrika hasi zen parkera heldu arte. Nik, ez dakit zergatik, segitu egin nion eta parkean bukatu nuen nik ere.

Saiatu ginen handik ahalik eta isilen pasatzen, baina horrenbeste ume zirenez norbaitek ikusi beharko gintuen eta hala izan zen. Umeek oso txarrak

geundela esan ziguten eta pikutara joateko. Batzuk gu zapaltzen eta dena saiatu ziren! Inoiz ez nuen halako abenturatik bizi izan! Eta hori, ni abentura zale amorratua naizela...

Txanpi lasai asko zegoen; lasai-lasai zihoan ibiltzen, eta inork ez zuen zapaltzen. Uste dut ikusi ere ez zutela egiten.

Ni, berriz, korrika batean nenbilen, eta bat-batean behera nindoala sentitu nuen; eta hala zen, izan ere estolda batetik behera ari nintzen jausten. Azkenean, lurra ukitu nuenean, bertan ikusi nuen Txanpi, lurrean lasai-lasai eserita.

Estoldaren barnealdea ilun-iluna zen eta are luzeagoa.

Urrunean, begi horixka batzuk ikusi nituen, sei bat edo.

Eta gero eta gertuago zeudela nabaritzen nuen.

Beldurtzen hasia nintzen, begi horiek ez ziren nire irudipena, bene-benetakoak ziren, eta gero eta gertuago zeuden gainera!

—Goazen hemendik Txanpi! —esan nion ahots dardartiaz—. Ez gaude bakarrik!

Txanpik bere aurpegi serioaz begiratu ninduen, eta honako hau esan:

—Lasaiiii...

Baina nola egongo nintzen ba, lasai! Sei begiko munstro bat zetorren gu jatera!

Ez dut Txanpi batere ulertzen, oso pertsona arraroa da, bene-benetan diotsuet.

Bat-batean, estoldako iluntasunetik hiru arratoi potolo-potolo agertu ziren guri begira gose aurpegiarekin.

Korrika irten nahi nuen, baina beldurrak ez ninduen uzten. Arratoi guztietatik potoloena beste bien aurrean jarri zen eta lasterka hasi zen nire atzetik. Ni ere lasterka hasi nintzen, noski.

Ez dakit nondik atera nuen atzera begiratzeko ausardia, baina hala egin nuen, eta Txanpi lehengo horman zegoela ikusi nuen. Hain geldi zegoenez

arratoiek ez zuten ikusi. Hurrengoan, ahal badut, Txanpi bezala oso geldi geratuko naiz eta horrela erasotzaileak ez nau ikusiko.

Berriro ere atzera begiratu nuen; arratoiak urrun zeuden, atzeraka zihoazen, kikilduta.

Aurrera begiratu eta sekulako ur uholdea zetorrela ikusi nuen. Atzeraka hasi nintzen korrika, arratoien antzera, baina alferrik, urak harrapatu egin ninduen.

Azkenean urak bazter batean utzi ninduen, behar nuen bazterrean, gainera; izan ere, utzi ninduen bazterrean zegoen estoldatik irteteko tapa.

Atzera begiratu eta bertan zegoen Txanpi, beti bezain isilik.

Estoldako tapa zabaldu genuen bion artean, oso pisutsua baitzen, eta gure fruitategi preziatuaren aurrean aurkitu ginen!

Ia-ia negar egin nuen. Azkenik fruitategian!

Korrika batean hasi nintzen fruitategian sartu arte.

Lagun guztiak besarkatu nituen. Oso-oso pozik nengoen.

Txanpi ikusi nuen bazter batean, ez zuen inor alboan, eta pena eman zidan.

Berarengana joan nintzen

—Nahi al duzu nire laguna izan? —galdetu nion.

Txanpik harridura aurpegiarekin begiratu zidan eta sorbaldak altxatu zituen.

—Bai edo ez?


Irribarre bat ikusi nuen Txanpiren aurpegian lehenengo aldiz eta “bai” lotsati bat esan zidan, azkenik.

Ordutik askoz gehiago hitz egiten du eta oso pertsona alaia da.

Hau izan da nire bizitzako abenturarik onena, ez dut inoiz ahaztuko, eta gainera oso lagun on bat egin dut: Txanpi.

Ipuinak

Hirugarren taldea Saria



Aniztasunaren zaintzailea

Eider Elorza

Aniztasunaren zaintzailea

Hemendik 13 urtera, Irlandan, bi neska-mutuko biziko dira, Mutende eta Zunduri. Bi neska-mutil jator izango dira, eta baita oso alaiak ere.

Mutenderi Zunduri eta lagunekin egotea gustatuko zaio, Mutende mutila izango da eta Zunduri neska.

Mutende zein Zunduriren gelako mutilek adarra joko diote mutil gaixoari, marineska bat dela edo ligatzea gustuko duela esanez. Baina Mutendek bere gustuko gauzekin disfrutatzen jarraituko du.

Egun batean, mutil kuadrilla, Irlandan dauden Moherreko itsaslabarretara hurbilduko da han jolastera baina, han, Sima aurkituko dute, aniztasunaren zaintzailea.

Herensugeari ez zaio gustatuko mutilek Mutenderi egiten jardungo dutena, eta zigor bezala bere kobara eramango ditu mutikoak.

Kuadrillako ausartenak hori zergatik egin duen galdetuko dio, baina Simak bere betebeharra dela esango dio. Orduan aniztasunaren zaintzaile nola bihurtu zen kontatuko die mutilei:

—Ni gazteagoa nintzenean, leku hau pila bat gustatzen zitzaidan, bere bista zein espazioagatik. Baina, egun batean, gorpuzkera eta itxuraz, nire lagun baten bezalakoa izan nahi nuela kontatu nion amari eta esan zidan bakoitza zen bezalakoa zela, ez zela inporta zatarra edo polita izan, garrantzitsuena jatorra, alaia eta lagunkoia izatea zela. Segidan, hona etorri nintzen nire

sentimenduak askatzera, baina, bat-batean, aniztasunaren zaintzailea agertu zen. Esan zidan mundu honetako gauzarik politena inguruan daukagun aniztasuna dela, denok garela desberdinak. Eta orduantxe aniztasun zaintzailearen lana eman zidan.

—Lan honekin ikasi dut gure gauzarik ederrena dela denok desberdinak garela —botako du Simak.

Mutikoak aho zabalik geratuko dira eta segidan, Mutende, Zunduri eta beste neskak agertuko dira.

Arratsalde hori ez dute inoiz ahaztuko baina, hortik aurrera, arratsaldero joango dira Simaren kobara eta herensugearekin munduan zehar ibiliko dira aniztasuna babestu eta zaintzen.

Beraz, zeruan zehar neska-mutil zein herensugeren bat ikusten baduzue gehitu munduko aniztasunaren festa zabal horretara, baina ez ahaztu festa horretan besteengandik desberdina izan behar zarela.

Ipuinak

Hirugarren taldea Saria



Arranoaren guraize kaltegarriak

Unax Zangitu

Arranoaren guraize kaltegarriak

Bazen behin Alex izeneko 9 urteko mutil bat.

Egun batean bere lagunekin zebilen jolasten “guraize jausira”. Guraizea gora bota behar zen eta lurrean gora begira lagatzen zuena zen jokoaren irabazlea. Beti apustuak egiten zituzten: batzuetan bi kromo, besteetan kanika bat, edo hiru txapa... Baina, egun horretan, Alexi tokatzen zitzaionean, guraizea gora bota eta pasatzen ari zen arrano bat jo zuen, eta arranoa lurrera erori zen minez.

Alex berarengana joan zen eta minduta zegoela ikusi zuenean bizitza osoan zainduko zuela zin egin zuen. Momentuan negar pixka bat egin zuen eta guraizea hain gora botatzeaz damutu zen.

Arranoa eskuetan hartuta etxera joan zen eta aitari, amari eta arrebari dena kontatu zien, eta arranoa etxean onartu zuten, Alex pixka bat poztu zen.

Hurrengo eguna heldu zenean albaitariarengana eramán zuten eta guraizeak urdaila zulatu ziola azaldu zion doktoreak.

Denak isil-isilik zeudela doktoreak operatu ahalko zuela esan zien eta aita, ama eta arreba poztu egin ziren, baina Alexendako ez zen nahikoa. Berak arranoa sendatzea nahi zuen.

Ebakuntzaren ondoren arranoa azkoz hobeto zegoen baina Alexek, arranoa ondo egonda ere, damututa jarraitzen zuen. Baina... arranoak lasai egoteko eskatu zion “izan edo ez izan”; arranoarentzat munduko lagunik onena zela esan zion eta orduan sentitu zen ondo Alex: bat, pasatutakoa ondo irten zelako; eta bi, kaltetu ondoren arranoak dena ulertu eta bere laguna izaten bukatu zuelako. Beraz, munduko lagunik onenak egin ziren eta pozik bizi izan ziren betiko.

Ipuinak

Laugarren taldea 1. saria



Gerratik ihesi

Izar Sanchez

Gerratik ihesi

"Hura ere, aurreko egun guztiak bezalakoa zen; iluna, tristea, esperantzarik gabeko eguna.

Maite zenuen jendea joaten ikusten zenuen eguna. Bakardadeak menperatzen zintuen eguna.

Egun bat gehiago.

Gauero, biharkoa zoriontsuagoa, lasaiagoa izateko esperantzaz joaten ginen denok ohera, baina, egun guztiak berdinak ziren, eta gero eta arriskutsuagoak, jasanezinagoak, bilakatzen ziren egunetik egunera.

Lo egiteko lekua bagenuen, zorionekoak ginen; eta jatekoa eta maite gintuen jendea inguruan bagenuen, zortedunak.

Leherketak gero eta gertuago entzuten ziren, horrenbeste aldiz ihes egin genion gerra, hurreratzen ari zen. Baina oraingo honetan ezberdina zen, bakarrik negoen. Ni nintzen, gerraren aurka, bizitzaren aurka. Bizitza hobe bat izateko esperantza ia galduta. Baina argi nuen; ez nuen borrokatu gabe etsiko.

Egoera jasanezina zen; baina, ezinezkoa egiten zitzaidan handik kanpora, horrenbeste urtetan zoriontasuna eman digun herrialdetik kanpora, bizitza errazagoa, zoriontsuagoa izan zitekeela pentsatzea.

Baina, ezer ez da ezinezkoa. Behar bada hemendik kanpo zoriontsu izan naiteke.

Baina, nola atera hemendik? Inork ez zekien erantzuna.

Nola hasi zen gerra hura? Noiz? Zergatik?

Galdera asko nituen buruan, batzuk zentzudunak, beste batzuk ordea ez.

Denok genituen galdera berdinak baina inork ez zituen erantzunak.

Behin ume batek galdetu zidan:

—Amestea libre da, edo ez?

Galdera horrek zalantza asko sortu zituen nire barnean. Gehienok gerra amaitu eta mundua leku zoriontsu eta alaia izango zela amesten genuen. Gerrarik gabeko mundu batean bizi ahal izango ginela. Baina esperantza izpi bat agertzen zenean, berriro ateratzen ziren lainoak eta esperantza izpi horiek desagertu egiten ziren. Baina gure barnean esperantza horrek bizirik jarraitzen zuen.

Norbait pasatzen zen bakoitzean, kotxez zein hegazkinez, gu handik ateratzera etortzea espero nuen, baina inoiz ez zen horrela, gehienak gerrara bidean zihoazen soldaduak ziren. Eta nahiz eta jakin hurrengo egunean ere haiek izango zirela, badaezpada begiratu egiten nuen, ia egunen baten nire zortea aldatuko ote zen.

Hilabeteak egon nintzen, gerraren erdian, bakarrik, ihes egin ezinik. Edozein norabide hartuta ihes egin nahian berriro gerra topatzen nuen. Eta azkenean, ihes egiten saiatzeak ezertarako balio ez zuela onartuta amore eman behar izan nuen, baina handik irteteko esperantza inoiz galdu gabe.

Hilabete haietan zehar denetik pasatu zen, jendea ezagutu nuen eta lagunak egin nituen baina azkenean, gehienak joaten ikusi behar izan nituen.

Pentsatzen nuen ez nintzela inoiz handik aterako baina nik ez nekien arren, nire bizitza aldatzeko zorian zegoen.

Egun normal bat zen, beste guztiak bezain iluna eta tristea. Ez zen ezer aldatu, gerrak jarraitzen zuen eta ni handik ezin irtenik nenbilen. Bat-batean zarata handi bat entzun zen. Gero eta hurbilago entzuten zen. Ez nekien zer zen inoiz ez bainuen entzun zarata hori. Trumoi eta hegazkin baten zaraten arteko nahasketa zirudien. Norabide guztietara begiratu nuen baina ez nuen ezer ikusi.

Zarata gero eta altuago entzuten zen, eta gero eta antz gehiago hartzen nion hegazkinaren soinuari.

Halako batean, zeruan zerbait azaldu zen. Hasieran ez nuen ondo ikusten baina nigana hurbiltzen zen heinean, libelula antza hartzen nion.

Oso handia zen, aurrealdean kabina handi eta borobil bat zuen, txuriz margotua, gainetik pertsona batzuen siluetak beltzez margotuta zituen. Kabinaren atzean buztan moduko bat zuen, oso luzea zen, eta hau beltzez margotuta zegoen eta silueta txuriak zituen. Buztanak sei metro inguru neurtzen zituen.

Kabinaren gainean, lau makila luze zeuden, objektu hegalaria martxan jartzerakoan bueltaka hasten zirenak. Makila bakoitzak, gutxi gora behera lau metroko luzera zuen.

Objektu hegalaritik emakume bat atera zen, eta niri begira gelditu zen. Ni ere berari begira nengoen.

Halako batean berarengana hurbiltzeko keinua egin zidan. Hasieran ez nekien zer egin, baina berriro begietara begiratu nionean, jakin nuen pertsona fidagarria zela, eta ni laguntzera etorri zela.

Hurbildu nintzenean, besarkada bat eman zidan eta momentu horretan, nire bizitza osoan zehar sentitu ez nuen ziurtasuna sentitu nuen. Seguru sentitzen nintzen ezezagun baten besoetan.

Biok objektu hegalarira igo ginen. Bertan ura, janaria, arropa... eman zizkidan. Behar nuen guztia hartu eta gero, objektu hegalaria martxan jarri zuen, eta hegan urrundu ginen gerratik; iluntasun eta beldur guztitik.

Orduan jakin nuen, leku ilun eta triste horretatik aparte, munduan badaudela toki lasaiak, alaiak, zoriontsuak: GERRARIK GABEKO LEKUAK.

Eta nahiz eta ni ezertaz ez ezagutu, bere alaba bezala zaindu ninduen. Eta lehenengo unetik bere maitasuna eta laguntza guztia eskaini zidan."

Emakume horri esker nago bizirik; eta nahiz eta zu ez ezagutu bere maitasun eta laguntza guztia eskaintzen dizun jendeari esker gaude gutako asko gaur hemen.

Beraz, beraiek hori egin bazuten gugatik, zergatik ez dugu egingo guk beste batzuegatik?



Ipuinak

Laugarren taldea 2. saria



Itsasoak ekarri zidana

June Odriozola

Itsasoak ekarri zidana

Kanpoan elurra mara-mara ari du. Sukalde epelean goxo-goxo nago, zure postalari begira. Negar malko bat doa nire matrailan behera, baina ez da penagatik; asko somatzen dut zure falta. Hain zoragarria izan da zurekin pasatu dudana uda...

Osaba Karlosek, Karletik, bere Gorlizko etxean oporrak pasatzera gonbidatu ninduen. Hasieran zalantzan egon nintzen: zer egingo nuen han bakarrik, lagunik gabe? Baina esan zidanean nire txakur maitteak, Mattin eta Bizkor, ere eramanez ahal nituela, iritziz aldatu nuen. Egingo nituen lagunak han, eta baita egin ere!

Lehenengo eguna aspergarria izan zen: eguraldi txarra, hondartzara ezin joan...

Baina, hala ere, ilunabarrean Mattin, Bizkor eta hirurok paseotxo bat ematera joan ginen. Eta orduan gertatu zen ezustekoa. Hondartzan ez zegoen inor, itsaso zakarra zegoen, txakurrak ere urduri zeuden... eta bat-batean alde egin zidaten zaunkaka. Oihu batzuk entzun nituen eta txakurren atzetik arroka ingurura hurbildu nintzen. Dagoeneko zeharo ilunduta zegoen, ez zen ezer ikusten eta ia negarrez hasteko nengoenean, bi begi beltz nituen nire pare-parean.

Oihu egin nuen nor zen galdezka. Berak ere oihu egiten zuen eta ez nion ezer ulertzen. Sustoa pasatu ondoren, behin lasaituta, elkar ulertzen saiatu ginen, baina ezinezkoa. Negar egiten zuen etengabe, bere hizkuntzan hitz batzuk esanez. Ingeleseztan saiatzea pentsatu nuen eta pixkanaka-pixkanaka berriketan hasi ginen. Orduan ulertu nuen. Bere gurasoekin gudatik ihesi, babesteko herriren baten bila zebiltzan, baina itsaso zakarrarekin ontzia hondoratu eta

honaino iritsi zen. Ez zuen ezer, ez familiarik, ez lagunik, ez etxerik, ez janaririk... dena galduta.

Besarkada estu bat eman nion, lasaitzeko, beldurrik ez izateko, txakurrak bere behatzak miazkatzen zebiltzan bitartean.

Ezin nuen han utzi. Zerbait egin behar nuen. Osabak garaje bat zuen, zeinetara ia inoiz ez zen joaten, eta hor ezkutatzea pentsatu nuen. Nire eskutik heltzeko esan nion, baina, ikaratuta, ez zidan eman. Oraindik ez zuen konfiantzarik nigan baina nik nitaz fidatzeko esan nion, ahal zen bezala. Behin konfiantza hartuta, eskutik heldu zidan gogor, eskua dardarka zuela.

Garajera sartu ginen eta manta zahar batzuekin ohe bat egin genuen. Berotan sartutakoan hitz egiten hasi ginen, ahal zen moduan. Ulertu nuenez, Jasmin zuen izena, 11 urte zituen eta Siriatik ihesi zetorren. Bat-batean ekaitz bortitz bat hasi zen. Ziztu bizian osabaren etxera joan nintzen nire arropa batzuk hartzera.

Heldu nintzenerako, Jasmin lokartuta zegoen manta zahar horiekin egindako ohearen gainean. Beste manta batzuekin tapatu eta ondoan ura, gaileta batzuk eta arropa garbia jarri nizkion. Gau horretan garajea bertan lo egitea pentsatu nuen, ezer ez zela gertatuko ziurtatzeko. Nire bizitzan pasatu dudak gaurik txarrena izan zen.

Hotzak ikaraz nengoen, busti-bustita eta, hori gutxi balitz, kanpoan zeuden oinaztu eta burrundarek txakurrak ikaratzen zituzten.

Esnatu nintzenean, Jasmin nire arrokekin jantzita eta utzi nizkion janaria eta uda edanda aurkitu nuen txakurrekin jolasten. Beste pertsona bat zirudien, guztiz aldatuta, poz-pozik. Hondartzara joan ginen eta han aurkitu genuen hondarretan bere itsasontzia erabat suntsituta. Jasmin ontzirantz inguratu zen eta ontziko xafila batzuen azpitik kutxa bat atera zuen, baina beste inoren arrastorik ez zegoen. Bertan bere traste kuttun batzuk zeuden, horien artean bere familiaren argazki bat.

Hurrengo egunak zoragarriak izan ziren. Txabola bat eraiki genuen, uretan ia egun osoa egoten ginen igerian... bere gauzak kontatzen zizkidan, gudan, bonba artean igarotako egunak, galdutako lagunak, beldurra, hotza, miseria... sarritan egiten zuen negar baina berriz ere barrea ateratzen zitzaion. Jasminen

begiek historia handia kontatzen zuten, kolore beltz hori, distira harrigarri hori...

Egunero esaten zidan esperantza zuela bere familiako norbait aurkitzeko, baina niri ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Kontu haundiz ibiltzen ginen osabak ez ikusteko baina egun batean zoritxarrez ikusi egin gintuen plazako txorrotetan jolasten.

Dena azaltzen hasi ginen poliki-poliki. Osabak ertzaintzara deituko zuela esan zigun. Guk ulertzen genuen arren, ezetz esan genion; lehenago ondoko herrira joan behar ginela, hango hondartza oso polita zela eta. Osabak onartu egin zuen baina ilunabarrean puntu-puntuan hondartzan egoteko esan zigun.

Autobus geltokira abiatu ginen ahalik eta azkarren autobusa hartzeko.

Heldu ginen ondoko herrira, ziztu bizian. Autobusetik atera ginen korrika batean, hondartzan ahalik eta denbora gehien egoteko.

Ez zegoen inor hondartzan, isiltasuna zen nagusi; bakarrik kaioen karraskak eta olatuen arroken kontrako talkak entzuten ziren, momentu horretan gozatu genuen benetako itsasoaren magiaz. Baina, halako batean, Jasmin, atzera begiratu eta emakume bati begira geratu zen, begiak bere aurpegian tinko. Buelta eman eta, ni itsasora begira nengoela, esan zidan han zegoen emakume hura bere ama zela. Nik ez nion sinetsi eta bere irudimena zela esan eta karramarroak zeuden begiratzera joan nintzen. Ez zen denbora asko izan baina Jasmini deitzera itzuli nintzenean ez zegoen inor. Bere bila hasi nintzen batetik bestera, baina ezer ez. Deitu, negar egin... dena egin nuen baina kito, Jasmin lurrak irentsi zuela zirudien! Triste eta burumakur joan nintzen autobusa hartzera eta etxera iritsi bezain laster osabari kontatzera. Hori izan zen Jasmin ikusi nuen azken aldia.

Zure postalari begira nago eta liluragarria iruditzen zait esaten didazun guztia. Hurrengoan sinetsiko dizut esandako guztia. Gorroto ditut gerrak, maite zaitut Jasmin. Beste era batera, baina errepikatuko dugu urteren batean elkarrekin?

Ipuinak

Laugarren taldea 3. saria



Amildegian behera

Oier Elortza

Amildegian behera

1937/06/12

Gaur eskolatik eraman dute Joxe Martin. Medikuak etorri dira, ohe batean etzan eta ospitale berrira eraman dute, amildegia gainean eraiki duten ospitale moderno horretara.

Amak esan dit ezin garela bertara joan, baina Luisi, Manolori, Paxkuri eta niri, Txomin, ezetz esan digutenez, joateko gogo gehiago sartu zaigu.

1937/06/13

Gaur irakasleak esan digu Joxe Martin ezingo dela berriz bueltan etorri eskolara. Aureliok hilda dagoen galdetu dio irakasleari, baina ez dio ezer erantzun.

Jolas orduan laurok elkartu gara, eta Joxe Martini buruz eztabaidatzen hasi gara.

—Hilda dago! —esan du Luisek.

Nik hori ez esateko eskatu diot, eta ospitale berri horretara eramango zutela esan diet.

Manolok eta Paxkuk bertara joango garela esan dute.

Arratsaldeko zazpiak dira, plazan geratu gara eta elkartu orduko abiatu gara. Joxe Martin ez dugu inon ikusi, ilundu egin du eta etxera joan gara lotara.

1937/06/26

Azken egunetan ospitalea ikertzeroa joan gara, eta denok katarroa dugu. Paxkuren etxera medikua joan da eta tuberkulosi zerbait duela esan dio.

Nire etxera ere laster etorri da medikua, ni ere ez naizelako guztiz ondo sentitzen.

Tuberkulosia dudala esan dit medikuak eta bihar nire bila etorriko direla ez dakit zertarako.

1937/06/27

Auto bat etorri da nire bila, amak musu bat eman dit, Karmenek ez nau agurtu eta amildegi aldera joan gara, hobeto esanda, amildegi gaineko ospitalera.

Sarreran *Tuberkulosiaren Gorlizeko Ospitalea* ipintzen du. Sartu eta nire ezusterako Paxku ikusi dut. Biok gaude gaixo eta oso zurbil.

1935/06/28

Lehen eguna oso geldo pasa da, arratsalde guztia ohean pasa dugu Paxkuk eta nik, eta Joxe Martin oso pozik dago, gu ospitalean egotean lagunak dituelako.

Goizean, beste auto bat iritsi da. Bertan Luis dator bera ere gaixorik. Zerbait susmagarria gertatzen da ospitale honetan, ez da normala, bertara hurbildu eta gaixotasuna kutsatzea.

Arratsaldea iritsi denean, Manolo etorri da autoan.

Erizaina arauak esaten hasi zaigu: ezin gara satora jaitsi, lo asko egin behar dugu eta ezin gara ordu asko jolasean ibili.

1937/06/30

Lau egun hauetan ospitale guztia ikertu dugu goitik behera, sotoa izan ezik, bertara jaisteko atean kandadu handi bat baitago. Lehenengo astea oso ondo pasatu dugu Joxe Martin beti alai dago, Paxku barrezka eta Manolo, Luis eta ni jolasean.

Hala ere, egia esan, familia, hau da, ama, Karmen eta aita faltan botatzen ditut.

1937/07/01

Gaur erizainei galdera bat egin diegu, eta oso haserre erantzun digute, horrelako galderak onartezinak direla esanez; guk familia ikus dezakegun galdetu diegu bakarrik.

Ematen duenez, familia ikustea debekatuta dago eta ezin gara ospitale honetatik irten. Leku hau geroz eta gutxiago gustatzen ari zait.

1937/07/15

Azken egun hauetan, hainbat erizainek esan digute gure jarrera okerragoa dela. Mehatxatu gaituzte, esanez ez dizkigutela gurasoen eskutitzak emango. Beraien falta geroz eta gehiago sumatzen dugu hemengo ume guztiok.

Arratsaldean, sukaldera bidean sotoko kandadua ez zegoela bertan konturatu gara, orduan ikertzera sartu gara.

Oso toki iluna da sotoa, erdian mahai handi bat dago, mailuak, mazoak eta beste hainbat erreminta daude bertan. Denok harrituta gaude eta bat-batean erizain baten ahotsa entzun dugu, beldurtu egin gara eta ezkutatu.

Sototik atera eta lotara joan gara denok. Joxe Martin geroz eta ahulago dago, bere ordua laster iritsiko dela uste dut.

1937/07/28

Aste hauetan, ume asko ubelduraz beteta ikusi ditut ospitaleko korridore zurietan.

Ume guztiek, sotoko atetik pasatzean, ziztu bizian korrika egiten dute. Soto horretan umeek oso gaizki pasatzen dutela uste dut.

1937/08/02

Gaur ez da egun alaia: Joxe Martin hil egin da, gauean, lo zegoen bitartean eta denok triste gaude, batez ere, Manolo, azken egunetan berarekin egon delako.

Manolo ez dago gustura, familia faltan botatzen du, txorakeriaren bat egingo duela uste dut.

Manolo ez da bazkaltzera etorri, Luis, Paxku eta ni oso arduratuta gaude, ez dakigu non dagoen ezta norekin ere, agian, sotoan sartu dute eta bertan hil da.

1937/08/03

Erizainek Manoloren jarrera desegokia izan dela eta sotoan sartu dutela esan digute. Asko lasaitu gara denok, baina zertarako ote daude erreminta horiek guztiak? Agian, umeak joteko?

Manolo etorri da gauean, ez dago beti bezala eta sotoan gertatutakoa azaldu digu. Gure imajinazioa izan da dena, ez dituzte umeak joten. Gaizki portatzen diren umeak sotoko gela ilun batean sartzen dituzte eta umeen ubeldurak, atea bilatzean hartutako kolpeengatik dira.

1937/08/04

Manolok ihes egin du, bere ohe gainean ohar bat utzi du:

*Familia ikusi behar dut,
ezin dut gehiago jasan hemen giltzapetuta
baina ez larritu niregatik
ondo egongo naiz.*

MANOLO

Denok pasa dugu arratsaldea bere bila, baina ez dugu inon aurkitu; agian, etxera joan da, agian, ezkutatuta dago edo, agian, amildegitik behera erori da, baina ez dela gurekin egongo argi dago.

1937/08/06

Luisen jarrera ez da hobe, egia esanda geroz eta okerrago portatzen da eta erizainek sotoan sartu dute. Oso ahul zegoen Luis eta ez zaio komeni jatekorik gabe egoterik.

Gaua iritsi da eta Luis indar gabe dago. Lotara joan denean arnasa hartzeari utzi dio eta hil egin da. Bi bakarrik geratzen gara, eta ez dut uste luzerako izango denik.

1937/08/13

Gaur asteartea eta 13 da, zorte txarraren eguna. Goizean eskutitz bat iritsi zaigu Paxkuri eta niri:

Gaur gauean nik egindakoa egin behar duzue ospitaletik irten nahi baduzue. Beldurrik gabe egin salto itsasoko uretan sartzeko eta igeri egin hondarra ukitu arte. Eskolako jolas lekuan elkartuko gara gaueko hamarretan.

MANOLO

Paxku eta ni gaur gauerako plana gertatzen ari gara. Ezin da ezer gaizki atera, dena ondo pentsatuta dugu, afaldu ostean itsasora salto egingo dugu eta Manolorekin elkartuko gara.

1937/08/14

Tuberkulosiaren Gorlizeko ospitalea bonbardatu zuten atzo gauean. Korrika etorri naiz Txomin eta Paxku ondo dauden edo ez ikustera, baina ez ditut gorpuak aurkitu, Txominen egunerokoa baizik. Ez dakit salto egin duten edo ez, baina seguru nago ondo daudela eta laster elkar ikusiko dugula.

MANOLO

Ipuinak

Bosgarren taldea 1. saria



Katu-katua ez zen bat

Fernando Garatea

Katu-katua ez zen bat

Isidorarekin

Isidora gurpildun aulkian geratu zenean hasten da istorioa. Animali denda batean erosi ninduten haren ilobek, amona zaharrari konpainia egiteko. Hegoamerikako emakume zaintzaileak baino merkeago aterako nintzaien, ziur, katu bati ez baitzaio soldatarik ordaindu behar. Gainera, amona albait arinen hiltzea nahi zutenez, berdin zitzaien katu batek zaindua izatea edo gizaki batek. Are, katu batek zainduta arinago hilko zela pentsatuko zuten.

Isidoraren begietan beldurra nabaritu nuen, hasieran. Beldurra kuriositate bilakatzen ikusi nuen, gero. Eta kuriositatea konfiantza bihurtzen, azkenean. Etxekoen begietan, aldiz, mespretxua eta haserrea baino ez nuen antzeman, denbora guztian.

“Puff” deitzen zidaten. Min egiten zidan izen iraingarriak, baina jakin nuenean uzker ustelaren edo nekearen soinuari ez eze, etxeak ederresteko altzariei ere deitzen zaiela horrela, forma geometriko anitzeko ipurdipeko bigungarri erraldoi koloretsuei, lasaitu egin nintzen.

Baina argi gera bedi ni altzari bat baino askoz gehiago izan nintzela Isidorarentzako, e: lagunik zintzoena. Izaera lotsorrek bakarti bihurtu bazuen umetan, zahartzaroak areagotu egin zion bakardadea. Etxeko inork ere ez zuen ikusi nahi izaten; hain da hori horrela, ezen bakarrik ematen baikenuen ia egun guztia, egongelan. Luzaketak egiten irakatsi nion, katuok nagiak ateratzen artistak baikara; herrian gertatzen zen guztia ekartzen nion katuen batzarretik, eta keinu bidez adierazi; oin hozminduetan esertzen nintzaion, epeltzeko; atzamar okerrak milikatzen nizekion, minbera zeuzkanean; zirkuko akrobata bihurtzen nintzen, triste susmatzen nuenean; gelako objektuak apurtzen nituen, gose edo egarri zenean, zaratara etxeoak erakartzeko. Heriotzari izuak hartzen

zitonean pentsamendua, altzoan etzanda laguntzen nion inarrosaldiari eusten. Esperientzia horiek guztiak bizi eta gero, hain egin ginen lagun on, ezen azken arnasa ere neu ferekatzen eman baitzuen.

Erreginekin

Isidora hil zenean, oihalezko zaku batean bota ninduten itsasora ilobek, ozeanoaren errai labainkorretan ito nendin, baina erpe zorrotzekin oihala urratu, eta orroka ari zen itsaso haserretuan erditu ninduen zakuak.

Arrainik ez nuen ikusi, baina gandor zurizko olatuak nahi beste. Lau hankan igeri eginez olatu baten gandorrera igo nintzen, eta, handik, itsasontzi bat hauteman. Nireganantz zetorren. Ezin sinetsi! Hau poza! Parera iristean, erpeak sartu nizkion sabelaldean. Minak inarrosi egin zuen, baina inarrosaldiak, zorionez, ez ninduen askatu. Eskalatzaileak harrizko horman gora nola, halaxe igo nintzen itsasontzira. Kubiertan enborrak baino ez.

Enborren artean liztor asiar dotore bi okadaka, itsasoaren enbatei aurre egin ezinda. Nabari zitzairen erreginak zirela, Asiako baso bateko liztorren batzarrak leku hobeen bila espedizioan bidaliak. Enbor batean ezkutatuta zihoazen, elkarri besarkatuta; gonbitoak botatzeko baino ez ziren askatzen. Armiarma batek ekartzen zizkien zomorroak janda kentzen zuten gosea eta elkar ferekatuz hegoetako zurmindura, armiarmak, modu xelebrean, kalanbrea deitzen ziona.

Azkenean, heldu ginen portu batera. Atera ziren ezkutalekutik eta burrunba gozoan astindu zituzten hegoak. Platerkada zomorroa jan eta prest misiorako.

Nire herrira bueltatzeko abagune aproposa zelan pentsatu nuen. Zeinu bidez azaldu nien bazela txoko bat munduan, non zomorroak gurin-gurin eginak zeuden, eta, beraz, erraz ehizatze moduan.

Eramateko txoko horretara eskatu zidaten. Ordainsaria: armiarmak utzitako hari batetik zintzilik eramango nindutela, hegaz.

Pozez zoratzen onartu nuen eskaintza. Katu hegalar bihurtzeko ametsa bete egingo nuen, azkenean.

Abiatu ginen. Hor gindoazen hegaz. Beraiek hegoak astinduz, ni harietara obatz. Halakoren batean, hara non ikusten ditugun dozenaka plater hegalar

txuri-urdin lurrean. “Martitzera iritsi ote gara?”, zalantza. Jaitsi altueraz eta zer ikusiko? Dozenaka tripaundi, kamiseta txuri-urdinekin, botila batzuetatik likido horixka edaten.

—Hau al da gabiltzan herria? —galdetu zidaten.

Ezetz, segitzeko aurrera.

Handik laster, harrizko arratoi bat antzeman genuen itsasoan sartuta.

Arratoiei monumentuak egiten dizkietenez ezin dela fidatu, eta barrualderantz abiatu ginen.

Ereinotz arbola erraldoi bi antzeman genituen harrizko itxidura batean. Barnealdean, laukizuzen itxurako eremuak gurutzez eta lorez apainduak. “Hau izan daiteke bizitoki aproposa, guretzat” esan zuten erreginek. “Zuhaitzetan habiak eraiki eta loreetara datozen zomorroak jan”.

Zomorro guri-guriak zebiltzan kanposantuan. Erle-euli-eltxo salda hartu eta habiara abiatu ziren erreginak arrautzak ipintzera. “Eta arrautzak ipintzeari uko egingo bagenio?”, euretako batek. “Orduan bai biziko ginatekeela benetako erregina legez”, besteak.

Esan eta egin. Agur, beraz, hegaldi luzeak. Agur katu kosmikoa izateko nire ametsak.

Aitorrekin

Isidoraren hilobian nengoelakoan, Aitorren etxean esnatu nintzen, biharamunean, burua erabat nahasita. “Ametsezkoa izan ote da erregina asiarrekin bizi izandakoa?”.

Aitorren amak platertxo bete esne-zopa jarri zidan aurrean, gosaltzeko. Nagiak ateratzeko aukerarik eman gabe hasi zitzaidan zereginen zerrenda irakurtzen; ondoren, Aitorren gelara eraman ninduen. Ordenagailu aurrean zegoen Aitor. Amaren aurkezpenak betondoaz entzun zituen, eta, bakarrik utzi gintuenean, tekla bat sakatu eta lanturuetan hasi zitzaidan ordenagailu-ahotsez.

—Hau desgrazia nirea! Ez nintzen, bada, jaio distrofina izeneko proteina kodifikatzeko gai ez den gene batekin; horrek giharren ahultzea ekarri dit: distrofia muskularra; ondorioz, bizkarra atzerantz makurtzen doakit, aldakak

barrualdera sartzen, tripa kanpora ateratzen, belaunak alboetara begira, oinak dandarrez, atzamarrak okertzen ... finean, munstro bat ikusten dut besteen begietan. Klik.

—Nireetan ere bai? —galdetu nion.

—Ka-tu-e-nak ez du-te kon-ta-tzen... —erantzun zidan, kostata.

—Baina begiak dituzt... Eta, otoi, ez jarri ordenagailu ahotsik nirekin hitz egiteko, zure ahotsa askoz politagoa baita, bere dardarizo eta guzti.

—Ez nazazu moztu! Nire lanturuak entzuteko kontratatu baitzaituzte, ez niri pelota egiteko... Zer esaten ari nintzen... A bai, ordenagailuari esker idatz dezakedala idazten dudan gutxia, nire atzamarrak ez baitira gai arkatz bati eusteko ere; baina, zorionez, oraindik, saka ditzaket teklak.

—Zorionez diozu? Zoritxarrez esan beharko zenuke. Ordenagailuak esan baitizu munstroa zarela...

—Eta hala naiz, kirolik gogokoena gailetak jatea duen munstro bat. Hain naiz horrelakoa, ezen amak ez baitit uzten bere aurrean kirol gogokoena praktikatzen, ahoko gihar ahulen erruz adurra dariola hasten naizelako berehala... baina gaileta janak barrua asaskatzeko balio dit, pentsamendu beltzak uxatzeko... ordua...

—Pozten naiz gauza normalak egiten ere badakizula jakiteaz.

—Barrua baretuta, sokarik gabeko gitarra jotzeari ekiten diot, hori baita nire bigarren aktibitaterik gogokoena. Balkoian jo behar izaten dut, amari zaratek buruko mina ematen baitiote. Beheko atsotxoari gustatzen zaio, ordea, kalean ikusten nauen guztietan esaten baitit zeinen ondo jotzen dudan danborra; barkatu behar zaio andreaki gitarraren soinua eta danborrarena bereizten ez jakitea, ez baitauka kultura musikalik.

—Musikaria ere bazaitugu, orduan...

—Sufrimendua jabolatzeko balio dit musikak. Ilargi beteko gauetan sufritzen dut nik, gehien; aurpegi handi horren argiak urduri jartzen binau. Indarrrik banu harrika apurtuko nioke musua, baina nahi eta ezin; azkenean, gitarra lagun, kanta tristeak abestuz errenditzen natzaio.

—Niri ere gustatzen zait, bada, ilargi beteko gauetan alarauak botatzea ...

—...

—...

—Gaur sesioa izan dut amarekin, Eguneko Zentrora eraman nahi nauelako. Esan diot ez nintzela nahita jaio gene matxuratu batekin. Negarrari eman dio. Beretzako denbora behar duela esan dit, zoratuko ez bada.

—Eta bakarrik egon ez zaitezen, neu kontratatu nau.

—Hori ematen du...

—Lasai. Zeure ondoan izango nauzu beti. Nahi beste gailera jango ditugu eta ilbeteko gauetan, sufritu beharrean, gozatu egingo dugu, zu sokarik gabeko gitarra jotzen eta ni haur negartien oihuak imitatze ... Taldeari izen bat jarri beharko genioke, ezta? Zelan Simon and Garfunkel?

—Simon and Garfunkel? Zer diozu? Horiek gure amaren sasoikoak dira eta...

Lehenengo ilbeteko gauaren biharamunean kanporatu ninduen Aitorren amak, ertzainak etorri omen zitzaizkion-eta, gau betean, dezibelioen jatorriaz galdezka. Aitor, gizajoa, Eguneko Zentrora eraman zuten. Ni kale gorria.

Bakardadean

Baina kalean lekua egiteko borrokatu behar zenez, basora jo nuen, lasaitasun bila. Han, bakardadean bizi izan nintzen. Tripa-zorriak ziren arazo bakarra. Hasieran, gosea baretzeko ehizatzeari ekiten nion, baina hain nintzen baldarra, ezen belarra jaten ikastea besterik ez zitzaidan geratu. Belarjale bihurtuta, harrien pare egiten nuen lo, eta iratzartzeko, sekulako ikuskizuna antolatzen zidan Naturak: zuhaitzen artean argi-izpiak kukuka jolasten; haize zakarra isiltasuna ufadaka hiltzen; hodeiak zeru urdina zipriztin zuriz margozten; txorien hegaldiak zerua eta lurra hari koloretsuz josten. Eta basoaren erdian, enbor bat, tximistek eskultura bihurtua, bidea oztopatzen, betiko bertan geratzeko erregutzen.

Eskekoarekin

Gau batean, hilerrira joatea erabaki nuen, Isidora aspaldikoa bisitatzerako. Bertan geratu nintzen lo egiten. Hotzak iratzarri ninduen hurrengo goizean.

Begiak irekitzean, eskeko bat ikusi nuen aldameneko hilobitik ateratzen. Bizar eta ilez estalia zuen burua, zarpail zikinez gorputza, eta, hedatzen zuen kirats garratzminduak belarra ez eze, hilerriko loreak ere makurrarazi egiten zituen; grazia egiten zion, antza, egoerak, barrezka ari baitzen eten gabe.

Egunonak elkarri eman eta nagiak ateratzeari lotu nintzaion. Alboan etzanda, nik egiten nuena imitatzeari ekin zion berak, luzaketa bakoitzean, barre zantzoekin, kanposantuko isiltasuna urratuz. Amaitu nuenean, buruan hazka hasi zen eskekoa eta hango baso sarrian harrapatzen zituen parasitoak gosaltzen, umeek pipak jatean ateratzen duten krakada soinu berberarekin.

—Zertan zabiltza? —galdetu nion, enpagu keinua aurpegian.

—Hementxe, bada, tripa-zorriak baretzeko, buru-zorriak jaten. Baina handi samarrenak baino ez ditut irensten e? —erantzun zidan barrez ito beharrean, eta harrapatu berri zeukan zorri potolo bat eskaini, gosaria konpartitu nahi bailuen.

Ez nion onartu, tripaz gora hankatxoak mugitzen ari zen zorriak nazka eman baitzidan; berari ez, krik-krak batean irentsi baitzuen.

Gosaria amaituta, ereinotz orri lehorrak biltzeari ekin zion, pipan erretzeko; ondoren, motxila zahar batean sartu lozakua eta edukiontziak bisitatzerako gonbidatu ninduen, bazkaria ziurtatzeko. Ez nuenez ezer galtzekorik, bere atzetik abiatu nintzen, Isidorari agur esanda.

Eskekoaren perfumeari segika, hileritik hirirako estertzan, gazte talde bat aurkitu genuen, lurrean eserita, mutu, wasapeatzen. Bakar bat zegoen mugikorrik gabe, baina honek ere ez zeuzkan atzamarrak geldia, arrantzan zebilen sudur zuloetan, eta muki lehorren bat arrantzatzen zuen bakoitzean, ahora eramaten zuen, mukiaren gazitasunaz gozatzeko.

Nire enpagu aurpegiari erreparatuta, “horren zorriak aterpean bizi dituk”, esan zidan barrezka eskekoak. Aurrera egin genuen.

Harresiaren paretik, itsasoaren barbaroa entzun zitekeen ... orroka, haserre. Plazara bidean, behegainean, hosto horixkak haizearekin ari ziren jolasten ... Plazaren aurrez aurre eliza gotikoa, zut. Hormaren kontra atzeko hanka altxatuta, lau txakur, gotikoaren arbitanteak imitatzen, eta, bide batez, pitilin puntatik, parrastada txikietan, txiza egiten.

Elizaren aurrean turista antzuen taldea, argazki makinak kokotetik zintzilik, mingaina solte eta emozioz beterik. Kamera askoren objektiboa, baina, ez zegoen Elizateari fokatua, azalpenak ematen ari zen emakumeari, baizik; arropa estuek markatzen zizkieten kurba simetrikoez gotikokoak ez eze gainontzeko estilo guztietako arkuak erreparatzeko ere balio baitzuten.

Eskekoa atso-agureengana joan zen eskean; ni ingurua behatzen, bitartean. Halakoren batean, aitona bat agertu zen bikien karro bati sakaka. Bikiak txupatxus bana mihizkatzen ari ziren. Euretako batek mihia atera zidan, burlaka. Erpe egin nion, eta, negarrez hasi zenean, karamelu paloduna ostu. Aitona ez zen ezertaz konturatu, eta nik karameluaz ederki nuen gozatu.

Eskekoari ez zioten turistek dirurik eman, baina bai ogitarteko hondakinak; beraz, zertan eskean segitu, hurrengo egunean biziko baginen ere ez genekien eta. Ortu batera erretiratu ginen, meditatzeraz.

Sarraila biratu, atea ireki, ortuan sartu eta zer aurkituko? Kaleko katu aldra bat batzartuta; zirkinik ere ez zuten egin; are, bota zizkidaten begirakuneekin, argi adierazi zidaten ez nintzela ongi etorria, eskekoak eskuan zekarren janari paketea banatzeko orduan, aho bat gehiagok mokadu bat gutxiago suposatzen baitzuen. Baina eskekoak ez zeukan katuekin turistek ogitartekoak konpartitzeko asmorik. Non gorde pentsatzen ari zen, motxilan ez baitzeukan lekurik. Azkenean, paketea konpostagailuan gordetzea erabaki zuen. Baina konpostagailuaren tapa altxatzean, sorpresa: sekulako arratoitzarra hondakin konposatuaren epeltasunaz gozatzen. Hura nazka! Bibote zorrotza jaso, estalkia nork altxatu zuen ikusteko, eta, buztan luzea astinduta, ez zela handik mugituko adierazi zigun, eskekoari eta bioi. Konposta nahasteko birabarkia sartzeko plantak egin zizkion eskekoak, baina barre eginez aurpegiatu zigun arratoiak: Ez zarete ausartuko! Ni ez, behintzat, kristoren larria ematen baitidate arratoiek. Eskekoa, ordea, sarda lauhorzduna eskuan itzuli zen txabolatik arratoiari gerra deklaratzera. Lehengo lekuan zegoen arratoia, garragarra, tripaz gora, lepoan hazkura egiten. Esku biek altxatu sarda eta kolpe batez zeharkatu zion gorputza eskekoak, halako suerte txarrez, non tripek aurpegia zipriztindu baitzidaten; ondoren, erromatarrek lantza nola, halaxe bota zituen eskekoak, airean, sarda eta kateatutako arratoia katuen tartera. Korrika joan nintzen euri-urez betetako

bidoietara aurpegia garbitzera. Ehun biderrez ureztatu nuen musua eta urratu arte igurtzi ortuko landareekin, baina alferrik, ez nuen gainetik kentzerik lortu ez nazka, ez goragalea. Intzirika hil zen arratoia katuen artean, baina mendekua ondo hartuta, kabroia.

Alzheimerdunarekin

Handik ihes egin nuen, kaleko katuen barre artean, euretako bati entzun nion ez nintzela katu-katua esaten. Eskekoak ez zuen, oraingoan, barrerik egin. Maite ninduen, antza. Portura egin nuen dzanga, itsasoko urak garbituko ninduelakoan. Uretatik atera nintzenean, euria ari zuen. Euritako beltz baten azpian zihoan gizon bati paper bat jausi zitzaion gabardinarean patrikeratik. Irakurtzen geratu nintzen, euri zaparradak arratoiaren tripek burmuinean txertatutako arrastoak ken ziezazkidan. Zutabe bitara zetorren paperekoa. Ezkerreko zutabea irakurri nuen lehenengo, eskuinekoa, gero. Hara paperean zetorrena:

*Eskerrak euria ari duen.
Euritako beltzaren azpian ezkuta naiteke,
eta ikusezin bihurtu.
Zerura begiratu eta
hegazti arrarorik ez.
Arnasa hartzeko abagunea,
baina
Trump-ek irabazi ditu hauteskundeak.
Eta garaipena ospatzeko,
ez da, bada, Melani emaztearekin
agertu oholtaza gainean.
Hura emakumea hura!
Edonori zotina kentzeko modukoa.
Baina zer ikusi ote dio komunistaren alabak
agure zahar horri.
Ulertu ezinda biluztu naiz ispilu aurrean,
Trump bat agertu zait islatua,*

*Kolore hitsezko burusoila,
gantzak nonahitik zintzilik.
Ispilukoak nola erakar dezakeen
horren emakume ederrik ulertu ezinda
nabilela,
komuneko argia itzali da.
Trump-ek espiatzen nauen zantzu garbia.
Ziur droneak ere bidali dituela
ni garbitzera.
Ez bere emaztea gustatu zaidalako,
baizik eta bera kolore hitsezko burusoiltzat
hartu dudalako.
Eskerrak Nevada urrun dagoen.
Eskerrak euria ari duen.
Eskerrak, ikusiaren ikusiaz,
euritako beltza
ikusezina den.*

Papera jausi zitzaiola esatera hurbildu nintzaionean, eskuak gora jaso eta katu itxurako drone batek hilko zuenik ez zuela inoiz pentsatuko aitortu zidan. Ez nintzela dronea argitu nion, aterpe bila zebilen katu triste bat baizik. Eurenera joateko, orduan, alzhemerrak jotako emazteari ilusioa egingo ziola eta.

Harrezkero, eurenean nago. Emazteari Isidorari egiten nizkion laztanak egiten dizkiot, eta berak, eskerronez, musuak ematen dizkit. Antzinako nobioa naizela uste du. Emaztea siestan dagoenean eta senarra Melaniri begira, nire biografia idazten dut; izan ere, erpeekin ordenagailuz idaztea, ipurtzulotik aire epela puff soinuaz ateratzea bezain erraza baita.

Ipuinak

Bosgarren taldea 2. saria



Geranioen iraultza

Amaia Telleria

Geranioen iraultza

Pikutara, dena. Roberto Txiki eta Juanmari eliza ondoko kurban. Eskuak galtza bakeroetako poltsikoetan sartu nituen, barru-barruraino eta ezaxolakeria aurpegiaz gerturatu nintzen haiengana.

—Gabon. —Lurrun hari batek ihes egin zidan hatsarekin. Robertok betaurreko handien bestaldetik begiratu zidan, gorrituta zeukan sudur punta.

—Eh, kontu, Guardia Zibilak zebiltzak hor.

Ezpainak estutu nituen, hartua zuen susmoren bat, nonbait. Buruaz baiezkoa egin nien, eskerrak emanez. Aurrera jarraitu nuen itzulingurua emanez, ezin nintzen zuzenean elizara joan. Gandua zegoen, baina bi silueta beltz bereizten nituen kalean beheraka eta bidea gurutzatu beharko nukeen elizara joateko. Aurrera egin nuen, neska-lagunaren etxera zihoan mutil gaztea nintzen.

—Buena' noche'.—Azentu andaluziar garbia zeukan hitz egin zuen siluetak. Figura berdeak ziren, ez beltzak.

—Buenas noches.—erantzun nien lasaitasuna erakutsi nahian. Errekarteko lorategitik igarotzean, Guardia Zibilak atzean utzita, geranio gorriari lore pare bat kendu nizkion, Gemmari emateko. Nire begiek lorategiko izkinei errepaso azkar bat eman zieten, zerbaiten bila bezala. Gemma ez zen nire neska-laguna, artean... Baina Guardia Zibilek ez zuten jakin beharrik. Kasik imajina nezakeen bibotedunaren konplizitate begirada, lorea lapurtzen ikusten ninduen bitartean!

Aurrera jarraitu nuen siluetarik ikusten ez zela egiaztatu arte. Ezkerrera sartu nintzen Pilar-Enea parean, geranioak eskuetan ongi helduta. Hasperen egin nuen, etxe-arteko babesean seguru sentitzen nintzen. Beheraka-beheraka

egin nuen etheen arteko zirrikituetatik pasaz eta elizako atzeko atarira heldu nintzen. Ez zen inor ageri, itxuran. Itzalak irentsi ninduen.

—Ikusi haute? —Beltzak besoa ukitu zidan.

—Bai, baina kalean jende gehiago zebilek, ez ditek ezer sumatuko. —Beltza, Aldasoro, Javi eta Martin. Patxi falta zen—. Patxi?

—Ez zakiat, orain etorriko duk.

—Hasi egingo gaituk.

* * * *

Erlojuari begiratu nion, hamabi minutu falta ziren liburutegia ixteko. Pertsianak jaisten hasi nintzen, normalean jendea mugitzen hasten baitzen hori ikusita. Poliki-poliki hutsik gelditu zen gela. Hutsik, apalategien artean ezkutuan neuzkan kideak egongo ez balira.

—Dena prest?

Liburutegiko mahaiaren goiko tiradera zabaldu nuen eta liburu bat atera: El País Vasco, Pío Paroja. Burua altxatu nuenerako alboan ziren Aldasoro, Beltza, Javi eta Patxi, egurrezko aulki tolesgarriak hartuta.

—Telak ekarri dizkiat. —Javik larruzko poltsatik hiru tela eta guraizeak atera zituen.— Maitek eta Gemmak ekarri ditiztek Segurako jostunarenetik.

Mahai gainean ipini zituen zabal. Patxik guraizeak hartu eta mozten hasi zen, diagonalean luze.

—Aldasoro, hik metalezko pieza egiterik edukiko al duk? —galdetu zion begirada telatik altxatu gabe.

—Bai, tailerrean ari nauk. Ia prest zagok.

—Kontuz ibili hadi, behintzat, ez hazala inork ikusi —beste guraize batzuk atera nituen neure motxilatik eta mozten hasi nintzen ni ere.

—Ekarri. —Beltza ematen genizkion oihalkiak beren tokietan jartzen hasi zen eta Javik albaindu egiten zuen. Puntua gertuago emanda josi beharko zen ondoren—. Azkenean nola sartu behar gaituk? Giltza erabilita askoz ere errazago egingo geniake...

—Garbi esan nian nire aitaren giltza ez dugula erabiliko —guraizeak utzi eta hatz erakuslea luzatu nuen, esan nahi nuenaren garrantzia uler zezaten—. Herriko zenbat pertsonak zeukatek elizako giltza? Organistaren haritik tiratzen segituan hasiko dituk eta ez diat aita honetan sartu behar.

Beltzak amore eman zuen, buruaz baietz eginez.

—Hi! Koloreak alderantziz jartzen ari haiz! —Aldasorok guztion begiradak toki berera eraman zituen.

—Ez al dituk ba horrela? —Patxi aulkitik altxatu zen tela eskuetan hartzeko.

—Berdea eta txuria ez dituk horrela. —besoak zabalik begiratzen zion Aldasorok lagunari.

—Ikusi, hemen zagok. —36. orrialdean ireki nuen liburua. *El País Vasco*. Hortxe zegoen Baionako kale baten argazkian, libre eta zentsurarik gabe, ikurrina.

* * * *

Ahalik eta hots gutxiena eginda zabaldu nuen leihoa. Isiltasuna. Kalean ez zen erreka hotsa besterik entzuten. Kontu handiz atera nuen gorputza leihotik eta oinak teilen gainean ipini nituen, toki estrategikoetan. Leihoa bildu eta salto egiteko unea zela ikusi nuen. Uste baino altuago zegoen, goitik ikusita. Teilatu izkinaraino arrastaka joan eta belarretara salto egin nuen.

Leihotako oholak itxita zeuden, eskerrak udazkenari. Gurasoak esna, baina ezertaz ohartu gabe egongo ziren barruan.

Baratzeko ateari bultza egin nion, poliki, baina kirrinka egin zuen. Ate madarikatua! Pausoa bizkortu nuen Kale Nagusira heldu arte, ez nuen etxekoek ni horretan harrapatzerik nahi.

Pikutara, dena. Roberto Txiki eta Juanmari eliza ondoko kurban. Eskuak galtza bakeroetako poltsikoetan sartu nituen, barru-barruraino eta indiferentzia aurpegiaz gerturatu nintzen haiengana.

—Gabon. —Lurrun hari batek ihes egin zidan hatsarekin. Robertok betaurreko handien bestaldetik begiratu zidan, gorrituta zeukan sudur punta.

* * * *

—Hasi egingo gaituk.

Javik kanguroa erantzi zuen eta besoa harekin estalita, sakristiako leihoa hautsi zuen. Aldasorengana jaitsi zuen begirada, taldeko txikiena zen.

—Hire txanda, Aldasoro. —Pauso bizkorrean eta zigarroa eskuetan zuela Patxi zetorrela ikusi nuen.

—Egon. Patxi dator. —eskuaz hurbiltzeko keinua egin nion eta zigarroa oinaz itzali zuen.

—Kontuz, pikoletok zebiltzak eta. —azaldu zuen ahapeka. Bizkarrean zapladatxo bat emanda agurtu ninduen—. Hartu al dituzue poltsak Errekartetik?

—Dena prest. —Martinek bi poltsak erakutsi zizkigun eta lurrean utzi zituen. Ondoren, aterpetik irten eta elizaren izkinako zutabeen jesarri zen, zelatan. Beltzak eta Javik eskuak batu zituzten eta Aldasorok gainean ipini zuen oina. Besoak sakristiako leiho-ertzean jarrita inpultsua hartu eta barrura sartu zen.

—Uste baino errazagoa duk hau. —bota zigun sakristia barrutik— Joxe, nun zagok giltza?

Bezperan joana nintzen elizara, ezkontza bat zeukan aita hurrengo zapatuan eta partituren liburua etxean utzita joan zen entsegura.

—Atearen gaineko habean.

Giltzak lurrera erortzean ateratako soinua entzun genuen. Ingurura begiratu nuen, inguruan inor ez zegoela ziurtatu nahian.

—Hemen zagok. —Aldasorok atea zabaldu zigun presaz, sakristiara sartzeko. Martin korrika txikian gerturatu zen, alde bietara begiratu.

—Itxi egingo diagu, badaezpada ere. —Beltzak atea poliki-poliki itxi zuen guztiok sartutakoan eta giltzari buelta bat eman zion.— Hemen geratuko nauk ni, bada ezpada ere.

Sakristia ilun zegoen eta ez genuen argirik piztu nahi. Leihoetatik sartzen zen farolen argiaz ikusten genuenaz baliatuta, elizara igaro ginen. Gaeuz, debekaturiko zer bait egiten ari ginela jakinda eta ilunpetan, hotzikara sentitu nuen bizkarrezurra zeharkatzen.

—Itxaron egin behar diagu, jendea zabilek oraindik eta arrisku handia duk.

—Plumiferoaren mahuka atzera eraman nuen, eskumuturreko erlojua ikusteko.

—Bai, hobe. Plana erreparatuko diagu? —urduri zegoen Martin ere.

—Bale. Patxi, prismatikoak prest? —Plastikozko poltsatik atera zituen eta lepotik zintzilikatu. Patrikan gorde zuen poltsa gero, aztarnarik ez uzteko.

—Kanpandorrera igoko naiz inor dabilen ikusteko.

Harekin abiatu ginen guztiak, elizako bi banku ilaren arteko korridoretik. Harritzko zoruan ematen genituen pausoak entzun zitezkeen, isiltasunean. Martin zurezko eskaileren azpian geratu zen, Beltzaren abisuren bat bazen, entzun ahal izateko. Besteak igo egin ginen eta bobedaren gainaldera heldu ginenean Patxik goraka jarraitu zuen.

—Kontuz ibili behar dugu hemen, laurehun bat urte izango dira inork zoru hau zapaltzen ez duela.

Egurrezko habearen gainean zutitu nintzen, sendoa zirudien. Aldasoro atzetik zetorren, burdinezko pieza poltsa beroki barruan ezkutatuta eta lekua utzi nion. Javi ere habearen gainean pausatu zen eta oinak non jartzen genituen tentuz ikusita, harritzko paretaraino heldu ginen, zeinetan erromaniko estiloko leihatilatxo bat ageri zen. Jertsea altxatu nuen eta ezkutuan neraman ikurrina atera. Ederra atera zitzaigun azkenean. Aldasorori eman nion satisfazioz eta honek burnizko piezan kiribildu zuen.

Hantxe egon ginen zain, pixka batean, Patxik etxeetako argi guztiak nola itzaltzen ziren ikusten zuen bitartean. Erromaniko-gotiko estiloko eliza izanda, jende gutxik erreparatzen zion kanpandorrearen goialdean ageri zen leiho txiki diskretuari.

—Txii. —abisua. Patxik hasi gintezkeela adierazi zuen. Aldasorok metalezko pieza eman zidan eta leiho txikitik atera nuen, ahalik eta kanpoen, besoa irmo luzatuz. Kiribildutako ikurrina zabaltu egin zen pisuaz eta leihoaren alde

bietan pausatu nituen burdinezko piezaren oinak. Javik ordurako prest zeukan zementua eman zuen leihoa itxi eta metala finko gera zedin.

—Asko igartzen duk masaren kolore ezberdina. —bizarra igurtzi zuen pentsakor. Lurreko hautsa eskuetan hartu nuen eta paretara bota nuen, disimulatzeko. Aldasorok algara egin zuen.

—Ona, hi! —txalo jo zuen irrikaz eta hautsez estali genuen paretako bekatua.


* * * *

Elkarrekin sekretu itzel bat gordetzen duten pertsonen konplizitateaz begiratu nien lagunei. Irribarre egin genuen eta zehar begirada bat bota genion elizan haizearekin dantzan ageri zen telazko ikurrinari. Azken 39 urteetan herrian ikusi zen lehen ikurrinari. Gozoak jarriko ziren zenbait eguna argitzean.

Kalean behera jarraitu nuen, ezer gertatu ez balitz bezala. Azken finean, neska-lagunari geranioak eramatera zihoan mutil gaztea besterik ez nintzen. Geranioak non galdu nituen, ordea, neroni ere ez nintzen gogoratzen.

Ipuinak

Bosgarren taldea 3. saria



Denboran ametsetan

Aiora Arregi

Denboran ametsetan

Ander berriro sartzen da etxera burumakur. Seigarren aldia da ikasgai batean nota txarra ateratzen duela ebaluaketa honetan, baina oraingoan diferentzia handia dago: DBHko 3. mailara doa eta gauzak airean uzten jarraitzen badu, ikasturtea errepikatzeko arriskuan egongo da. Aitorrek, bere euskarako maisuak, bigarren aukera eman eta proiektu bat prestatzea eskatu zion duela pare bat aste. Anderrek, beti bezala, geroxeago egingo zuela zioen, eta horregatik heldu da etxera orain horrelako beldur aurpegiarekin.

Bere buruan dagoen pentsamendu bakarra euskara gainditzea da, baina proiektuarekin hasi aurretik ohe gainera botatzen da. Gora begira, egin behar dituen gauza guztietan pentsatzen hasten da, eta honek nekarazi egiten du. Ez du ulertzen zertan lagunduko dion etorkizun batean euskal idazleei buruzko lan bat egiteak. Beraren ustetan pertsona arruntak dira, denbora asko eta bizitza aspergarria dutenak. “Hori edonork ahal du egin!” esaten du beti Anderrek. Berak ez du ulertzen nolako zaila den liburu bat idaztea. Eta gainera ez du olerki bat bere ere zabaldu bere bizitza osoan. Ander aspertzen hasia denez, bere ohe ondoan dagoen mahaitxotik kargadore bat hartu eta mugikorrera entxufatzen du.

Erlojua berriz begiratzen duenean, gabeko hamaikak jo dutela ikusten du. Pijama prestatzen hasia da, baina itxaron... GABEKO HAMAIAKAK DIRA! eta Anderrek oraindik ez du bere proiektua prestatu...; korrika ordenagailua hartu eta proiektuari buruzko informazioa bilatzen hasten da.

Bero egiten du. Anderrek bere ingurua aztertzen du, non dagoen jakin nahian, baina ez du ideiarik. Etxe zaharrak ikusten ditu nonahi, eta errepideak egon beharrean lursail zabalak daude. Haizeak aurpegia jotzen dionean, gatz usaina sumatzen duenez, hondartza dagoen toki batean egon behar duela suposatzen du. Berez despitatua bada, orain guztiz balduta dago, ez du

ulertzen nola bere logelatik bat-batean heldu den honelako herri batera. Behera begiratzerakoan guztiz harrituta geratzen da, izan ere, abarkak eta berarenak ez diren praka pare bat daramatza jantzita. Urduri, eskua burutik pasatzen du, baina zerbaitek oztopatzen du bere eskuaren bidea: txapel bat. Honek bai ez duela zentzurik!

Lasaitzeko paseatzen hastea erabaki du. Mendi horiek ikusita zituen nonbait... agian interneten? Ez, ez du hori uste. Aspertzen hasia denez, mugikorra ateratzea pentsatu du, baina ikaragarritzko sorpresa hartzen du konturatzean bere poltsikotan ez dagoela mugikorrik. Infernuan erori dela pentsatzen hasten denean, pertsona bat ikusten du urrutira. Oso pertsona xelebrea iruditu zaio, izan ere, tunika marroi handi bat darama jantzita.

—Barkatu jauna baina...

—O! Zu ere nire lanaren jarraitzaileetako bat al zara? Horren gaztea izanda? Agian nire obrari buruzko zalantzarik?

—Lana? Obra? —Anderrek, gizon hau burutik sano ez dagoela pentsatzen du, baina etsipen handiarekin konturatzen da urrutira aurkituko duen pertsona bakarra izango dela—. Beno... dena delakorik, ahalko zenidake esan non gauden?

—Zu bai zu pertsona xelebrea! Zumaian gaude.

—Zumaian? Baina ni Zumaian egonda nago eta ez da honelakoa... Beno orain garrantzitsuena nire familiarekin kontaktuan jartzea izango da. A! Egia! Inkomunikatuta nago. Ba al duzu zuk mugikorrik?

—Mugikorra? Zer arraio da hori? Familiari mezu bat bidali nahi badiozu kontrako noranzkoan joan beharko zinateke, begira hortik —esaten du gizonak behatzarekin seinalatuz

—Mezua bidali? Baina zer mendetan bizi zara? Mesedez! 2017an gaudela, modernizatu! —Anderrek geroz eta gutxiago ulertzen dio bere parean dagoen gizonari.

—2017? Baina zer urtetan bizi garela uste duzu? 1912an gaude.

Anderrek, gizonari kasu egitea erabakitzen du, bere amak behin, zoroiei

beti arrazoia eman behar zaiela esan baitzuen. Gizonarekin herrirantz joaten hasten da bere “mezua” familiari bidaltzeko. Isilune oso desatsegina hasi dela uste duenean, galderak egitea pentsatzen du:

—Jauna, asko hitz egin dut zurekin, baina oraindik ez dakit zelan deitzen zaren.

—Ni? Txomin Agirre naiz.

Izen hori Anderri oso ezaguna egiten zaio. Baina ezin du gogoratu non irakurri zuen.

—Bergaratik pasatu al zara noizbait? Orain pentsatzen dudala, zure aurpegia eta izena oso ezagunak egiten zaizkit.

—Segur aski, igual nire izena Kresala eta Garoa bezalako liburuetan irakurri duzu.

—Idazlea al zara?

—Ez dizut ba oraintxe esan nik idatzi ditudala bi liburu horiek?

—Bai, baina... bueno berdin du. Eta zeri buruzkoak dira liburu horiek? — Benetan Anderri ez zaiola axola ezezagun batek idatzitako liburuak, baina zatarra iruditzen zaio desinteresatuarena egitea.

—Nire liburuak, euskal bizitzari buruzkoak dira. Bertan artzain, arrantzari... baten egunerokotasuna ageri da.

—Baina ez al da aspergarria? Hori eguneroko bizitzan ikusten dugu, zergatik irakurri?

—Ez, horretan oker zaude. Orain ikusten duguna eta hamar urte barru ikusiko duguna guztiz desberdina izango da, horregatik obra hauekin, aurrerapenei uko egin nahi diet.

—Baina ez dut ulertzen, zer berezitasun uste duzu dutela zure obrek?

—Beguiratu zure ingurunera eta pentsatu, “duela hamar urte horrelakoa al zen?” Ez, asko aldatu da. Gertatzen dena da, guk egunero ikusten dugula eta aldaketak ez ditugula nabaritzen, horregatik esentzia hau nire obretan harrapatu nahi dut, aurrerapenak, ingurunea guztiz aldatu baino lehen.

Eta orduan Anderrek ulertu egiten du. Dena ederragoa dela iruditzen zaio: inguruak pinuz beteta egon beharrean, pagoz, haitzez, lizarrez... beteta daudela ohartzen da. Eta airea... hori bai airea! Lore usaina sumatzen du inguruan, baina ez daki nondik datorren, izan ere inguru eta albo guztiak zuhaitzez, lorez edo belarrez beteta daude. Gora begiratzen duenean, zuhaitzen hostoen artetik irteten diren eguzki izpiek musuan ematen diote. Ordu batzuk lehenago ez zion kasurik ere egin inguruneari. Eta orain aldiz... ezin du hori burutik kendu. Beste galdera bat egin nahi dio Txomini:

—Zera, Txomin...

—Ikusten dut ulertu duzula Ander —hitz hauek esatean desagertzen hasi zen.

Eta horrela ekaitz baten barnean sartu da. Aurpegiak, izenak, izenburuak, istorioak... Bere aurretik pasatzen hasten dira. Ezin da geratu momentu bat ere argazki bat ondo begiratzera, bestela, honen atzetik datozenak ikusi gabe geratuko da Ander.

Presaka dabil. Oraingoan diferentzia da badakiela non dagoen: Donostian. Norantz doan jakin gabe, aurrera jarraitzen du. Zerua lainoz estalita dago, eta urrunean trumoiak entzun daitezke. Haize bolada handi batekin batera lehen tantanak erortzen hasten dira. Eutsi ezinik, Ander bide erdian geratzen da gora begira. Aurpegia eta arropa zeharo bustitzen ari zaizkio, baina ez zaio batere axola. Edonork berari begiratzeari pentsatuko zuen “argia ikusi duela”, baina egia esanda inoiz ez da egon hain nahaspilatuta. Gauza asko gertatzen ari zaizkio oso epe laburrean. Bakarrik burua jaisten duenean konturatzen da eskuineko eskuan liburu txiki bat daramala, eta bestean maletin bat.

Ingurunea arakatzen du eta konturatzen da Donostiako erdigunera iritsi dela, baina ezohiko gauza batzuk nabaritzen ditu. Hasteko, jendea bere izebak antolatzen duen 70eko hamarkadako festa batera doala ematen du, hippyak direla dirudi. Eta bigarrena, eta gehien interesatzen zaiona, kotxeak: Toyota Celica, Volkswagen SP-2... horrelako kotxeak ez dira aurkitzen egunero!.

Duela gutxi bizi izan duenarekin buruan, ideia bat etortzen zaio burura. Hau frogatu nahian, gertuen ikusten duen kioskora joan eta El Diario Vasco

egunkariari begirada bat botatzen dio, eta arrazoia zuela konturatzen da: oraindik ez dago 2017. urtean, izan ere, egunkariaren arabera, 1970eko maiatzaren 7a da.

Ikusitakoak ikusita, azken berri honek ez du batere harritzen. Oraindik ez du ulertzen zer ari den gertatzen. Bere buruan korapilo handi batekin, aurrera segitzea erabakitzen du.

Noraezean begira dagoela, gizon batekin egiten du topo, eta honek Ander baino despistatuago egon beharra du, Anderri eroritako liburua hartu eta firmatu egiten baitio. Hau egin ostean, Anderri berriro bueltatzen dio bere liburua, munduko gauzarik normalena izango balitz bezala. Behin Ander lurrera bueltatu dela, parean duen gizonari begiratzen dio. Honek ile motz eta oso iluna dauka, bere begiak eta bizarra bezalakoa, mutikoak burua pixkat altxatu beharra dauka, parean duen gizona bera baino altuagoa baita. Begirada batez, Ander konturatzen da gizon jakintsua dela, begiradan nabaritzen baitzaio. Honek buelta eman eta bere bidearekin jarraitzen du. Anderrek berdina egiten du berearekin.

20 minutu geroago iritsi behar den tokira iristen da: Erein argitaletxea. Ez daki nola baina inork ez dio ezer esaten lanean hasten denean. Lanean dagoen bitartean, lankideak entzuten ditu. Anderrek ez die kasurik egiten, baina xuxurlak geroz eta ozenago entzuten dira. Azkenean bere ondoan eserita dagoen neskari galdetzen dio ea zer gertatzen ari den. Honek esaten dio idazle batek izugarrizko eleberria idatzi duela, Euskal Herrian ez dela inoiz irakurri horrelakorik!

—Eta zein da ba idazle garrantzitsu hori?

—Nor izango da ba? Ramon Saizarbitoria. Ereinen egiten duzu lan eta oraindik ez dakizu nor den?

—Ba... e... zera, noski ezagutzen dudala.

—A! Benetan? Bueno, hori badiozu...

Eta lanean hasten dira berriz. Anderrek ezin du kendu burutik idazle berri hau, ezta berak egindako lan zoragarria. Zer motatako liburua idatzi zuen

Ramonek horren garrantzitsua izateko? Inoiz ez dut ulertu nola gustatzen zaion jendeari irakurtzea filmak egonik.

Hamarretako orduan Anderrek bere gauzak hartu eta taberna batera jutea erabakitzen du. Bokadilo begetal bat eskatzen dio tabernariari. Fondoan irratia entzuten du eta arreta jartzen saiatzen da, zerbait interesgarria esaten ari diren jakiteko, baina football-az ari dira berbetan! Hori bai iruditzen zaiola aspergarria! Zerbait egiteagatik, daraman liburua irakurtzen hastea erabakitzen du. Azala begiratu eta titulua irakurtzen du, “Egunero hasten delako”. Ander ez dute, ez portadak eta ez tituluak batere erakartzen. Baina lehenengo bi lerroetan zerbait diferentea sumatzen du, eta konturatzen denerako Ander guztiz murgilduta dago liburuan.

Tabernan berak espero baino denbora gehiago igaro du, zerbait entretenigarria denean denbora ziztu bizian igarotzen da! Tabernatik irteterakoan ateri dagoela ikusten du. Jendea aho zabalik eta harrituta ikusten du, eta beraien begiradak jarraitzean berak ere barre egiten du: ostadar bikoitz batek zeharkatzen du Donostiako zeru osoa. Horrelako momentu batean, damutzen da mugikorra ez edukitzeaz. Hala eta guztiz ere, bere bidearekin aurrera jarraitzen du.

Argitaletxera heltzerakoan, lehen zegoen postuan jarri eta lan egiten jarraitzen du. Oraindik benetan liburuarekin dago pentsatzen, ezin du burutik kendu.

—Ondo sentitzen al zara? —galdetzen dio bere ondoan dagoen lankideak

—E? A, bai, ondo nago. Ez kezkatu.

—Orduan zergatik duzu lelo aurpegi hori?

—Lelo aurpegia? Hau da nire aurpegia eta! Bueno, baina egia esanda, hamarretakoan liburu bat egon naiz irakurtzen eta ezin dut burutik kendu...

—Benetan? Eta zer liburu da hori?

—“Egunero hasten delako” —hori esan ostean, bere lankideak barre egin eta bere lanarekin segitzen du. Ander honek asko molestutzen du, edukazio txarrekoa iruditu zaio neskak egin duena.

Arratsaldean, lana amaitu ostean, kalera irteten da. Oraingoan lasaitasunez hartzen du ibilaldia. Eguerdi aldera irakurri duen liburua sakon aztertzea erabakitzen du. Liburua atera eta azala begiratzen hasten da zerbaitek geldiarazten duenean; egilea Ramon Saizarbitoria da! Orain gauza asko ulertzen ditu: lanean zegoen iskanbila, lankidearen irribarrea esan dionean liburu hau irakurri duela... Baina oraindik ez daki zerk desberdintzen duen liburu hori besteengandik. Anderrek desberdintzen duen gauza bakarra idazteko modua da, izan ere eleberri hau “zuzen” dago idatzita.

Bederatzi eta erdiak laster joko dute, eta hori zeruaren kolorean nabaria da. Anderrek inoiz ez du horrelako zerua ikusi: lainoz beteta dago, baina hauetako bakoitzak kolore bat du, laranja bizienetik, arrosa, morea eta azkenik urdin ilunenera pasatuz. Ibiltzen jarraitzen du eta konturatzen da zerua ez dela inguruko gauza polit bakarra. Kanean ez dago ia inor, eta horren ondorioz dena misteriotuago dela ematen du. Inguruko dendak arakatzen hasi eta liburutegi batean geratzen da. Kristalean Garoa ikustean irribarre egiten du. Lehenago ez zuen portadan erreparatu, baina orain hobeto aztertzen duela... ulertzen du! Bat-batean begiak asko zabaltzen ditu eta berriz ateratzen du liburua. Orain oso garbi ikusten du diferentzia: Gaia. Beste zenbait aspektutan ere desberdintasunak badaude, baina gaiarena da nabariena. Berak egindako lehenengo bidaian bi liburu ikusi zituen: Garoa eta Kresala. Bi liburu hauek tradizionalak ziren, eguneroko bizitzan baserritar bati gertatu ahal zitzaizkion gauzak ageri ziren. Aldiz, Ramonen eleberrian, gauza modernoagoak ikusi daitezke. Anderrek goizean topo egin zuen gizonaz gogoratu eta liburua zabaltzen du. Bertan bost hitz irakurri daitezke:

Ullertzea lortu duzu Ander!

Ramon

Haizea bere inguruan zeharo altxatzen da, ezin du ia arnasa ere hartu, ito behar dela pentsatzen du. Orduan, lehenago gertatu zaion bezala argazkiak, irudiak eta hitzak ikusi ditu bere aurretik pasatzen. “Zergatik gertatzen da hau? Jesus, zer bait esan nahi al didazu?” pentsatzen du Anderrek amore

emanda.

Anderrek irribarre egin eta esnatu egiten da. Begiak zabaldu orduko zeharo kezkatzen da. Ez du ezer prestatu eta gainera klasera berandu doa! Korrika aldatu, gosalduta eta kanpora irteten da.

Klasera gorri-gorri heltzen da beroaz. Bere aulkian eseri eta urduri bere txanda heltzera itxaroten du. Guztiz beldurtuta dago, ez du ezer ere prestatu. Ingurura begiratzen du eta gainerako guztiek proiektua prestatuta dutela ikusten du. Hau dena azken momentuan egiteko uzteagatik. Aitorrek bere txanda dela esaten dio. Poliki-poliki bere aulkitik altxatzen da, bere bizkarretik izerdi tantak nola jausten diren sentitu ahal du. Bere bihotza oso azkar doa, ezin du beste ezer entzun. Bere eskuak dardarka hasten direnez poltsikotan sartzea erabakitzen du. Azkenean, maisua dagoen tokira heltzen da eta honek irribarre egiten du, Ander gauza bera saiatzen da egiten, baina botaka egin beharra duen aurpegiaren antz gehiago du irribarre batena baino.

Irakaslea alde batera mugitzen da mutilari tokia uzteko. Bat-batean gaur eduki duen ametsaz gogoratzen da, eta ahalegina egiteagatik ez duela ezer galduko pentsatzen du. Amestutakoa ahalik eta modu zehatzenean azaltzen saiatzen da. Momentu askotan barre egin du, azken finean berak bizitako istorio bat kontatzen ari da. Amaitzerakoan irakasleak hainbat galdera egiten dio Anderri.

—Zure azalpena asko gustatu zait, baina zergatik ez dituzu beste idazle batzuk aipatu?

Anderrek memoria egin eta ekaitzetan ikusi zituen hitzak alferrikakoak ez direla izan pentsatuz, probatzea erabakitzen du.


—Esan ditudan idazleak adibideak direlako. Euskal eleberrigintza bi zatitan banatzen da: tradizionala eta modernoa. Lehenengorako Txomin Agirre aukeratu dut, beraren liburuak ezagunenak direlako, baina multzo honetan, Jon Etxaide eta Juan Antonio Mogel bezalako idazleak aipatu ahalko nituzke. Beste alde batetik, Ramon Saizarbitoria aukeratu dut, bera jotzen baita eleberrigintza modernoaren sortzailatzat, baina berarekin batera,

Laura Mintegi, Arantxa Urretabizkaia, Miren Agur Meabe eta Karmele Jaio bezalako idazleak aipatu ahalko nituzke.

—Oso ondo Ander, uste dut informazio gehiago eman ahal zenuela, baina hala eta guztiz ere, ikusten dut gaia guztiz menperatu duzula, beraz proiektua ontzat hartuko dut.

Bertsoa

Behenengo taldea Saria



Koldo Eleizalde

Alaine Egizabal, Denisa Condrat, Irene Romero


Koldo Eleizalde

Koldo Eleizaldeko
lehiaketa ugari
bertan izan ditugu
hainbat bertsolari
beraien talentua
da oso nabari
ea jasotzen dugun
aurten hainbat sari.

Antzerkia ta ipuinak
ditugu atsegin
munstroak, tximeletak
edo hainbat sorgin
batzutan nahi duguna
da barre eragin
galdu edo irabazi
berdin da zer egin.

Bertsoa

Behenengo taldea Saria



Bizitzako etapak

Kepane Gonzalez

Bizitzako etapak

(Doinua : Aita-semeak)

Ezer ere ez axola gabe
ibiltzen ginen saltoka
eta han geunden lagunartean
jolas orduan txaloka,
geldi baino nahiago genuen
aritzea ate-joka
nahiz ta talde denetan zegoen
kuadrilako marmota.

Udara noiz helduko zen kezka,
pistinetara joateko
mangituak eta flotadora
esaten zigun hartzeko,
ta uretan blai egon ondoren
bokadiloa jateko
iluntzean berandu baino lehen
afaltzera etortzeko.

Denbora aurrera joan ahala
egiten gera nerabe
ta munduko "guaienak" garela
sentitzen gera nahi gabe,
parrandazale amorratuak
alkohola dute jarabe,
amets eginez bihurtzen gera
bizitzako jaun da jabe.

Geroa zein den inork ez daki,
momentu bakoitza biziz
tokatzen zaizkigu egitea
egun denak ahaztezin,
irribarrea beti ahoan
alderik alde ibiliz,
zoriontsu izango garela
egiten dizut nik zin.

Bertsoa

Hirugarren taldea 1.saria



Aztrotia

Unai Aranzabal

Bizitzako etapak

(Doinua : Lagundurikan denoi)

1.

Zuena omen kalea
Egin zenuten pentsa
Gauzak nahastu eta
Oroitu zuk fetxa
Guk beti egiten dugu
Herrian defentsa
Gure alde daukagu
Jaurlaritza, prentsa
Zure etorkizuna
Neskato da beltza

2.

Oraingo honetan
Tenkatu da soka
Isiltasuna hautsiz
Gogor ostikoka
Narruzko eskuekin
Tira zure arropa
Herriaren etsaiak
Zaituztet gorrota
Bizirik irtetea
Ez dizut zuri opa

3.

Emango dizut soilik
Zuri bi aukera
Irtetea nahi baduzu
Zulotik etxera
Bestela prest daukagu
Gainezka bainera
Poltsa bat eta soka,
boltaia topera
Berba egin ezean
Gertu amaiera

4.

Isiltasuna ez da
Inola era hautsi
Nahiz eta guk gurean
Ez dugun ez etsi
Libre geratuko za
Irtengo za etzi
Malkotan itsasoa
Ezin zenuen eutsi
Ikasteko badugu
Ta zuk erakutsi

5.

Hamar urte ordutik
Badirela pasa
Eta barruan daukat
Kriston anabasa
Lo hartzea kosta ta
Larri dut arnasa
Honela bizitzea
Ez da ez erraza
Egia esateko
Ote naiz kapaza

6.

Egia ez aitortzeak
Orain ze zentzu du
Bizikidetza eta
Bakea helburu
Alde batera utzi
Gorroto ta gudu
Goikoak haserretu
Oraintxe seguru
Ertzainok ere noski
Torturatu dugu

Komikia

Behenengo taldea Saria



Kotxe txikia

Amaiur Olabarria

KOTXE TXIKIA



Komikia

Behenengo taldea Saria



Otsoaren bizitza

Anne Matilla







Komikia

Bigarren taldea 1.saria



Eguna berriz hasi

Ainara Plata, Irati Palacios


Komikia

Bigarren taldea 2.saria



Jokoa ez da errenta

Eneko Munarriz, Claudia Lopez, Leire Arietaleanizbeaskoa



Komikia


Hirugarren taldea 1.saria



Lainoak ere..... gainezka

M^a Angeles Padilla

LAINAK ERE GAINZKA!!!



Komikia

Hirugarren taldea 2.saria



Torlojuek odol zaporea dute

Aratz Guridi, Aitzol Oiarzabal, Lur Azkarate

